


Aikor!

txorierriko aldizkaria



URTEBETE TXORIERRITARREI BARRI EMOTEN



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON



RI *Remirez Instalaciones S.L.*

ENPRESA INSTALATZAILEA:
BEROGAILUA, GASA ETA URA

Hurrikonetxe,3
48195 LARRABETZU (Bizkaia)
Tel/Fax 94 455 82 96 / 606 39 33 46 - E-mail: reinsta@euskalnet.net

AVRTENETXE, S.A.

MAKINARIARLN SALMENTA LIA KONPOSAKLIA
NEKAZARITZA - LOREZAITZA

ERANUSKETA ETA TALERRA

Arcañola, 105
Tel: 94 455 40 66
Fax: 94 455 45 66
48010 LEZAMA (Bizkaia)

Autonomía, 57
Tel: 94 457 29 18
Fax: 94 457 29 18
48012 BILBAO



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Euskal Herria, 1
Telefonoa 944 543 682
Faxa 944 541 612
48160 Derio / Bizkaia

BEKAR

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK. S.L.

Urkiola Kalea, 4 Bárcos, 43
Tel. y Fax: 94 454 11 25 Tel.: 94 819 44 00
48160 DERIO - Email: bekar@euskalnet.net - 48130 BAKIO



LARRABETZU

MUSIKA ESKOLA

Ikastegi homologatua

Arcañola, 7 Biltzarra

Tel: 94 455 38 66

HELPE: LARRABETZU

Derioan, Enpresatarren

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!!


ZIRIBADA

JATETXE



☎ 94 454 5045

Gaztelumendi Plaza, 1
48160 DERIO



Centro Dental Txorierri

Mitxel 6. lehia - 48150 SONDIKA
(Tran geltokiaren aurrean)

Dña. R. Arozka Bodegasay (I.M.O.)

Dr. K. Itzaquedas Manso

Odontologia - Ortodontzia
Umeentzako Hartz Programa
(Osakidetza) - Hartz Protesiak

☎ 94 471 1639

EROSLE // Zorionak



Erak Nafar



Liridenda

Asua Jentatzen

Luzo Laguntzen

Erakia, Erakia
Tel: 94 454 12 45

48012 BILBAO
Móbil: 647 70 75 03

EUSKARAREN IBILERA

Badira hogei urte Euskararen Normalizazioaren Legea indarrean dagoela, eta bitarte horretan gauza asko pasatu dira eta gauza asko egin dira batean eta bestean.

Hemen ez dogu aztertuko goi mailako gauzarik, horretarako beste batzuk dagozela, baina bai geure inguruan zer ikusten dan.

Banan-banan preguntatu ezkerre gure herrietako pertsonen euskeraz badakiten ala ez, seguramente, gehienak euskaldun modu lez ikusiko lekie euren burua, baina, halan izanda, ez da gehiegi entzuten euskera gure herrietako kaleetan, dendatan, tabernatan eta abarretan. Eta zergaitik da hori ba? Hor dago kakoa!

Gure ume-gazte denporan (urte asko pasatu dira) gure hizkuntza ez zan ofiziala, eskolan erdera hutsean egiten zan eta maisu-maistrak erdeldunak ziren, baina eskolatik kanpo euskera hutsa egiten

gendun, eta etxean gurasoakaz eta aitiite-amamagaz be bardin. Ta gauza honek pasatzen ziren naturaltasunez, ezer kuestionatu barik, holan dala ta...

Baina orduan be batzuk hasi ziren espainolez berbaz, pentsatuz holan berba egin ezkerre aparteko "kategoria" hartzen zala, eta "aldeano" konplejua aldetik kentzeko.

Gaur egun gauzak asko aldatu dira, gure hizkuntza ofiziala da, euskerarentzat laguntzak dagoz, euskara erabilten dogunok ez daukagu "aldeano" konplejurik, estamentu ofizial askotan (danetan ez) euskaraz ahal da egin, baina lehen baino gitxiago entzuten da...

Bai da egia, urteak joan urteak etorri, euskaldunoi irakatsi jakula "edukatuak" izan bear dogula eta "edukazio" hori izaten da gehienetan, erdeldunen bat dagoenean geure inguruan, erderaz egitera eroaten gaituna. Ez dau inporta bertan badagoz 10

pertsona euskaldunak eta bat erdelduna, "Erderaz egin behar da eta kito!", ze "edukatuak izan behar dogu".

Molde honek apurtu egin behar dira eta geure eskuan dago gure herrietan martxa gehiago emotea geurea danari, euskerari, eta horretarako bide bat baka- rrik dago: ERABIL!.

Erabiltea erreza da. Asisko Urmenetak dinon modu lez "Euskara tresna erreza da eta nahi bezela erabili daiteke".



Testua: Gabriel Etxebarria (Lagatzuko presidentea)



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Patxi Gaztelumendi, Arantzazu Mendiguren, Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Mari Tere Onaindia, Belen Gana, Juantxu Bilbao, Amagoia Guezuraga, Mariasun Abona, Maite Aranburu, Amaia Rementería, Fernando Olabarrieta

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Oihana Astobieta, Basabildotza, Puri Martinez, Lourdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi), Gotzon Barandiaran

Zuzentzailea: Alberto Mtz. de la Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitate eta banaketa: Arantza Atxutegi

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 4.750

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



diruz lagundutako aldizkaria

ZER

NON

-Eritxia.....	3
-Aikor!-ri gutunak.....	4
-Laburrak eta albisteak.....	5
-Jaiotze tasak Larrabetzun.....	8
-Etxahun Lekua.....	10
-Sutondoan.....	12
-Aikor!-ren urteurrena.....	13
-Baserri mundua.....	22
-Teknologia.....	23
-Trena (II).....	24
-Gabonak bailaran.....	26
-Txorienitarrak munduan.....	27
-Sukaldaritza.....	28
-Denbora pasa.....	29
-Agenda.....	30

GUTUNAK

STOPI!

Zer esan gura dau hitz horrek? Gelditu, pentsatu, begiratu ezkerretara eta eskuinetara eta, arriskurik ez badago, aurrera: hori da egin behar doguna. Azken 25 urteotan zer gertatu da, Larrabetzun, ingurumen eta ondareari dagokionez? Bere sasoiari, Astorekan zabortege bat zabaldu zan. Gauza bat esan, eta inork (herritarrok ez, behintzat) ez dakizan hondakinak botatzeko erabili dana. Zer dala eta Galizatik etorri diren itsasontziak, Asturias, Kantabria, Gaztela-Leon eta Andaluziatik etorri diren kamioiak?

1983an uriolak izan ziren, eta errezena: presa eta zubia bota, Askatxuetako zubi dotorea bertan behera itxi, errotatoko kaltzak desagertzen itxi, baina erreka bazterretan eraikin barriak egiten jarraitu, Zubitalde kasu, errekek estali edo desbideratzeko ahaleginak egiten jarraituz, Axelieta industri eremuan gauetik goizera 20.000 m²-ko biltegi bat eraiki deuskue. Plazako etxe nagusien xarma eta larrabetzuarrok harengainako izan ditugun sentipenak zalantzan jarriarazi deuskuez.

Txorierriko saihebidia (korredorea), hori astakeria! Zenbat lur suntsitu dabe? Lezaman hasi, Bersoatik pasa Urkularaino eta Erletxetan amaituz, erreka guztia desbideratu dabe eta inork ez dogu ezer esan, hain gara moderno eta progresista.

Berba gitxitan horreekek dira egin direnak. Baina badoguz beste arrisku batzuk: segituan, Larrabetzuko saihebidia (bariantea). Danok dakigu herriaren erditik ezinezkoa dala dagoen trafikoa bideratzea. Baina zelako saihebidia? Hori da eztabaidatu eta erabaki behar doguna. Eta gainera, beste mamu baltz batzuk be agertu dira, hots, espekulatuzaileak. Zertarako bestela hainbeste lur eta baserri erosteko ahaleginak, batez be juxtu Agarretik hasi, Bersoara eta Lezamako mugaraino? Stop!! Herria danona da eta ez lau iluminaturera.

LARRABETZUKO GEROA ELKARTEA

Jesus Blanco, Miguel Angel Lekue eta Iñaki Barcena

KAIXO OLENTZARO!

Zamudioko Lagatzu naz, eta iaz legez eskutitza idaztea bururatu jat.

Aurten, geure hizkuntzea indartzeko hainbat gauza ikusteko eta egiteko errea euki dogu geure herrian. Hori dala eta pozik ibili naz, baina halan da be, horrenbesteko beharizana daukanez geure euskereak, batzuetan indarge be egoten naz. Daukaguzan beharrei aurre egiteko adorea eskatzen deusut niretzat.

Osterantzeko guztientzat euskerako berba guztiak barruan dekozan kutxa magiko bana ekartzea eskatuko neuskizu, apurka-apurka baina lotu barikl euskerak bere bidea egin dagien.

Ahal dozun guztia egingo dozulakoan

LAGATZU

OKERRAK ZUZENDUZ

Bizkaiko Frisoi Elkarteak (BIFE) aditzera emon deuskunez, Aikor!-en azken alean aipatu zen Ramon Uribasok txarolez arrazako behietan eskuratu zituela sariak, baina sariok frisoi arrazakoetan jaso zituen.

Antza danez, oker jaso genduzan datuak. Eskerrak emonten deusaguz datu hori argitzeagaitik eta aintzat hartzen doguz BIFEK esne behi erraza horren alde egiten dabezan ahaleginak

AIKOR!

EGUBERRI ON

COPISTERÍAS PROPLANOS

- FOTOCOPIAS B/N Y COLOR
- COPIAS DE PLANOS GRAN FORMATO
- REDUCCIONES Y AMPLIACIONES DE PLANOS
- PLOTTEADO Y ESCANEADO DE PLANOS
- ENCUADERNACIONES Y PLASTIFICACIONES
- IMPRINTA RÁPIDA (TARJITAS DE VISITA, FACTURAS,...)
- PAPELERÍA INDUSTRIAL: COPIADORA, PLOTTER, IMPRESORA, A3, A4
- CONSUMIBLES DE OFICINA, CARTUCHOS IMPRESORAS - FAX
- SERVICIO DE FAX, INTERNET Y AUTOCAD E INFORMÁTICA

- SERVICIO GRATUITO DIARIO A EMPRESAS DE RECOGIDA Y ENTREGA.
- RAPIDEZ Y SERVICIO AL MEJOR PRECIO

URDULIZ
Edificio Mecánico de la Peña
TEL. 94.430.46.18

URDULIZ - ALMACÉN
Igiltzera, 6 1ª Planta D
TEL. 94.430.46.18

SONDIKA
ERREMENTERI, 20 LOCAL
TEL. 94.453.57.81

Email: Proplanos@Sarenet.es
Web: Proplanos.eukalnet.net

cianoplan s.a.

Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio

Tfnoak 944 20 97 91
944 20 97 87

<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

LAGUNARTEKO BAZKARIA LOIUN ALKAR IKUSTEKO AUKERA

Testua: Juan Bilbao

Azken berrogei urte edo gehiagotan, Bilbo Handiaren edo aireportuaren erruz, Txorierrin oso etxebizitza gitxi egin da, batez be, Loiun eta Erandio Goikoan. Herri bi horreetan esan daiteke, oso oraintsu arte, ez dala etxebizitzarik egin urte askotan. Hori dala eta, loiuztar gehienak herritik alde egin behar izan eben ezkontzerako orduan, eta gaur egun, sasoi horretako loiuztar gehienak kanpoan bizi dira.

Egoera hori zelanbait bigundu edo gozotzeko, orain zortzi urte lagunarteko bazkari bat egitea asmatu eben loiuztar batzuk; eskola aroan, gaztaroan eta ezkondu eta herritik joan arte alkarregaz edo batera bizi izan zirenak alkar berrikusi eta, kasu batzuetan, alkar berrezagutzeko aukera ederra izaten dabe, urte askotan alkar ikusi barik egonda gero.

Orain zortzi urte hasi zanetik urtero ospatu da bazkaria. Aurtengoa azaroaren 30ean egin zan. Urtero legez, jende ugari, giro ezin hobean eta jakina, hainbeste denpora lagunak ikusi barik egon ezker, zer esanik eta zer entzunik ez da inoiz falta izaten. Denok dakiguzan gaiak: Abelino eta Txurruka, Josetxu eta Jalisko, Mogollo eta Frailon, Pedrutxo eta Bartolo, Grifa eta... eta abarrekoak, han ez da izaten ez saltsa ez umore faltarik. Egia esan, hau ez da egunero gertatzen dan gauza bat, urteroko ikuskizuna iza-

tea be ez da gitxi, horregaitik jai honek aparteko zeozer daukala esan daiteke.

Egun horretan ez da beste aparteko ekintzarik egiten. Lagunarteko bazkaria izaten da ekintza nagusia. Bazkalurretik be lagun taldeak sortzen dira alkarri bostekoa emon, kontuak esan eta txikito batzuk edateko, baina bazkalordukoa eta, batez be, bazkalosteko berbaldia izaten da beti atseginena.

Jai honen helburua herrian eta herritik kanpo bizi diren loiuztarrak alkartzea da. Ez dakit zenbat lagun biziko diren kanpoan, baina urtero hirurogei lagun inguru alkartzea pozgarria da. Orain arte egindako bazkarietan holan gertatu da, aurrerantzean be bar-din jarraituko dogulakoan gagoz.

Baina, gauza askotan legez, hemen be badago akats bat: loiuztar arteko bazkaria mutil edo gizon-lagunartekoa izan da orain arte. Neska edo andra-lagunartekoa be izatea ez litzateke txarto egongo. Egia esan, ez da erreza izaten hainbeste jende alkartzea, kasu honetan lez, jendea hain sakabanatuta dagoenean batez be; dana dala, ahaleginak egin beharko dira aurrerantzean alkarte jai hau handituz eta zabalduz joan daiten. Alkartera, zenbat eta handiagoa eta zenbat eta zabalagoa, hainbat eta aberatsagoa.

LEZAMAKO IKUSPEGIA ARGAZKIEN BITARTEZ



Zorritzetan euskara elkarteak eta Lezamako udalak bultzatu-ta, toponimia biltzeko lanak egin dira Lezamako herrian. Bilketa lan hori nahikoa aurreratuta dago eta hori guztia liburu batean kaleratuko da. Liburu hori herriko argazki zaharrez hornitu gura da, toponimoen kokapena hobeto argitzeko. Hartarako, Zorritzetan euskara elkarte herriko argazki zaharrak biltzen hasi da.

Argazkiek 1960 urtea baino lehenagokoak izan beharko dute. Gaia edozein izan daiteke. Argazkiak eroaten dituztenei 15 x 20 tamainako anpliazioa oparituko zaie.

Argazkiak liburutegira eroan beharko dira. Bertan eskaneatu eta jabeei bueltatuko zaizkie. Kopia Lezamako udalarenak izango dira, eta haiek zabaltzeko eta eskubidea izango dute.

Testua: Arantzazu Mendiguren

GABON ZORIONTSUAK



DERION ZER EDO ZER GEHIAGO MUGITZEN DABIL EUSKARA INDARTU ETA EUSKARAZ BIZITZEKO GOGOAK BULTZATUTA.

Derion badago jende multzo bat euskararen erabilera murriztagaz kezkatuta. Izan ere, kalean gero eta gutxiago entzuten da euskaraz dabilen derioztar edo txorierritarra. Gainera, euskaraz dabilenik entzuten duzunean, ia harrিতта begiratzen duzu nor den ikusteko. Beraz, zerbait egin beharra dagoela pentsatzen dugu batzuek.

Denok dakigu ume eta gazte jendearen artean, egon badagoela maila dezentea, baina gehienek ez daukatela normaltasunez euskaraz bizitzeko joerarik. Adinekoen artean egoera beste bat da, ezagutzari begiratzu gero, eta, gainera, dakitenen artean erabilera are murriztagoa dela esateko moduan gaude, belarria ipintzea besterik ez daukagu, leku ofizialeatik hasita azken denda edo tabernetaraino. Erabileraren inguruko azterketek ere hala erakusten dute.

Egoera honi buelta emateko herrian euskara talde bat sortzen eta eratzen hasiak gara. Derioko euskara taldearen helburuak:

- Euskaraz normaltasunez bizitzeko bideak indartzea.
- Euskararen etorkizuna bermatzeko bideak jorratzea.
- Kultur ekitaldiei lagundu eta berriak antolatzea.
- Eta denon artean honetan lan egitea.

Bidea egiten hasi gara eta gure kultura bultzatzeko lehenengo kultur ekintza OLENTZERO 2002 bultzatzea eta laguntzea izango da. Hura abenduaren 24an ospatuko dugu Derioko abesbatzazagaz batera. Horretarako arratsaldeko 5etan elkartuko gara udaletxearen aurrean eta herritik zehar ibiliko gara gabon kantak abesten, gau berezi hau ospatzeko eta OLENTZEROrri harrera egiteko. Nahi izanez gero, baserritarrez jantzita etortzea eskatzen dugu.

Talde honetan parte hartzeko edo laguntzeko prest dagoen guztiak atek zabal-zabalik dauzkala esan behar da.

Momentuz, asteartero elkartzen gabiltza, arratsaldeko 7.30etan hasita. Normalean ordubeteko bilerak dira.

Hasiak gara izen bat bilatzen eta estatutuak idazten. Gauza biak prest daukagunean, aurkezpen ofiziala egingo dugu, baina bitartean ez gaude geldirik.

Euskara egunerokoa da eta erabiliz bizi da.

Testua: Belen Gana

Konstituzio egunean jairik ez Txorierrri Institutuan

Aurten, ikasle talde batek eskatu du Konstituzio egunean zabalik utz zitezela Institutuko atek. Berau da halako eskaririk egiten den lehenengo urtea, eta ohiko eskolarik egon ez arren, hainbat ekitaldi prestatu ziren egun horretarako: hitzaldiak, bideo-emaldiak, herri kirolak... Guztira, 40 ikasle, irakasle eta langile batu ziren bertara. Institutuko ekitaldiak amaitu ostean, Konstituzioaren aurkako manifestazioa egin zen Derioko kaleetatik.

Testua: Jose Angel Mentxaka

Txorierrriko Institututik herrietako liburutegiei proposamena

Sarritan ikasle askok laguntza falta izaten dute eskolako lanak egiteko, etxean girorik ez daukatelako edota gurasoak ez direlako laguntza txiki horiek emateko gauza. Beraz, herriko liburutegian ikasteko leku egokia prestatzeko eskatzen da(gehienetan badago). Hura lagunduta izatea gura da, hau da, ikasturtearen barruan, astean hiru arrastiz monitore bat egotea ikasleei laguntzeko, beti ere Institutuaren eta herriko eskolaren koordinaziopean. Eskaera hori hurrengo hilabeteetan aurkeztu gura dute Txorierrriko udaletan guraso elkarte bitartez.

Testua: J. A. M.

Bularreko minbizia detektatzeko kanpaina Txorierrin

Txorierrin azaroan hasi zen bularreko minbizia goiz detektatzeko programa. Izan ere, gaixotasun hori da Euskal Herriko emakumeei gehien erasotzen dien minbizi mota. Kanpaina hori 1937tik 1953 urtera bitartean jaiotako emakumeekin egingo da. Aurretik, emakume guztiei postaz emango zaie euren txandaren berri. Programa hau Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak bultzatzen dute.

GABONETAKO AFARI ETA BAZKAI



Zerurena Jatetxea


Errementeri Kalea, 22
Tfn.: 94 453 57 54
Fax: 94 453 58 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)



ASADOR
ARAMENDI

EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK

Arteaga auzoa, 119
Tfn.: 94 452 11 58
ZAMUDIO



GAMINIZ
RESTAURANTE

AITOR ELIZEGI

Zamudioko Parke Teknologikoan Tfn.: 94 431 70 25
Haberria 717 Email: gaminiz@euskaltel.net
48101 ZAMUDIO BIZKAIA www.gaminizsateandri.com

EHNEK LARRABETZUAR BASERRITAR BAT OMENDU DU

Testua: Patxi Gaztelumendi

EHNE baserritarren sindikatuak 25 urte bete ditu Bizkaian. Eta horregatik Larrabetzuko Gardoki baserriko Jesus Mari Jauregizar omendu du. Plaka bat eskaini zioten 25 urteotan EHNE egindako lanagatik. Berak, ekitaldira ezin izan zuen joan, baina jaso du "platertzar" hori. Pozik da, eta garrantzitsuena "sindikatuak aurrera egitea da" aipatu zion Aikorri.



EKIDAZU ABESBATZA JAIO DA SANTA ZEZILI EGUNEAN

Santa Zezili eguna, kontzertu ederra antolatuz ospatu genduan Lezamako musikazaleok.

Zamudioko Bertoko Soinu Tresnen musika eskolaren aktuazio ondoren, musika bokala edo musika abestua entzuteko erea izan genduan, Lezamako EKIDAZU ABESBATZA jaiotze publikoaren aurrean aurkeztuz.

Jaio barria esan dogu, baina berba honeek azalpen txiki bat behar dabe: orain dala urte t'erdi, gitxi gora behera, Zorritzketan euskera taldetik sortu zan talde korala da. Beste herri batzuetatik be badatoz kantatzera, baina bere kide gehienak lezamarrak dira edo Lezaman bizi direnak. Koru barria eta gaztea da, oraindino egiten, formetan dagoena, atek zabalik dituen. Inguruetan gauza jakina da esaneko hau, emon dauz ba lau-bost

kantaldi Lezaman. Baina Zorritzketanetik sortu arren, bere bidea hartu dau orain, hau da, hemendik aurrera, bere izaera juridiko-legal propioa daukan alkarte dogu. Korukideak euskaltzaleak dira, lehengo moduan, baina alkarte bat izango da Zorritzketan (bere zereginetik) eta beste bat Ekidazu Abesbatza, helburu zehatz bategaz: euskal musika korala batez be eta munduko musika folklorikoa orokorrean maitatu, zaindu, zabaldu eta kantetako asmoagaz.

Eta ume jaiobarriei emoten jakien moduan, talde honek be belarrirako gozoa dan izena hartu dau beretzat, Mikel Zarate lezamar euskal idazleak asmatu eban izen ederra eta eufonikoa, Haurgintza minetan nobelan agertuten dana (EUKADIA - EKIDAZU). Zorionak eta urte askotarako!

Testua: Fernando Olabarieta

Anguleri jauregia itoginez itota

Anguleri jauregia bihar-etziko kultur etxea izango da. Une honetan KZ (konekta zaitez) gunea da, bere goiko solairuan. Bitartean obra lanetan jarraitzen dute bertan. Kontua da, KZ gunea zabaldu zenetik, ugariak izan direla, izan be negua hain dator gogorra, bertako itoginak. Behin eta berriro ura sartzen da teilatutik. Ordenadoreak hondatzeko moduan egon dira kasu batzutan. Teilatua bitan eraikia egon arren, beharbada hirugarrenez be altxatu eta barriro teilatua egin beharra egin liteke.

Hungaria, Portugal, Andaluzia eta Euskal Herria

Hainbat hizkuntza eta herriren topalekua izan da astebetetz gure herria. Hungariako Budapest eta Miskola hirietatik etorritako 8 gazte, Portugaleko hiriburutik eta inguruetatik etorritako 10 lisboar, Sevilla eta Cadizeko 5 andaluziar eta 18 gazte larrabetzuarrek osatutako euskal ordezkaritza hara eta hona ibili dira astebetetz. Bilbon, Lekeition, Zerainen... zer ikusi, zer entzun eta zer ikasi ugari izan dute hemen. Abenduaren 7an, zapatuz, bazkari eder baten inguruan egin zituzten azken ekitaldiak. Domeka goizean, nor bere etxe-koak agurtu eta euren sorterrietara joan ziren denak.

Testuak: Patxi Gaztelumendi

Jon Arretzek Instanbuletik Teheranerako bidaiakontatu eban Zamudion

Basauriko idazle-bidaiaria Zamudioko Dorretxean izan zan azaroaren 26an bere azkenengo bidaiak diaositibakaz azalduz. Azken aldiak egin eban moduan, kazu honetan Instanbulen hasi eta Teheran artera bizikletaz egindako ibilbideaz baliatu da, Ekialdeko mamuak bidai kroniken liburua idazteko. Durangoko azokan gehien saldu den liburuetako bat izan da. Lau egun lehenago Donostian aurkeztu eban.

RIAK TXORIERRIKO JATETXEETAN

HOTEIA
JATETXEA
BATEK + BATEK
Olibar C/Argosourbilla
Arriaga susean, 62
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 451 41 57
Faxoa: 94 451 13 16
E-mail: hotei_arriaga-orena@piramit.es

ERREKA BONO
JATETXEA
Izuzteko menua, azerberriko menu berria, karta, espesial berriak, jausartak, berriak berriak
Arriaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Telefonoa: 94 452 14 19
Faxoa: 94 452 26 29

CAFETERIA
IAZI
Eguneko menua eta Menu berezia
JATA KALEA, 2 - Telefonoa 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)

LEKE'S JATETXEA
S.L.R.
LEKEIKO BILBAO
Sanitizatu, J
Telefonoa: 944 543 834
48100 ZAMUDIO
Euzkadi

Restaurante
SAN ISIDRO
LIVRO ORAL SAN ISIDRO KANTU TALDEA ZAMUDIOAN 1970-1980
ESKUNTZAK, BATAKAK, JAUNARTZEAK
Telefonoa: 94 451 11 18
Faxoa: 94 451 11 18
Magillu Delia, 125
48100

LEJARRENE
JATETXEA
GARAIOLTZA, 102 - TEL: 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)

LARRABETZU EUSKAL

2002. urtean 23 ume jaio da, azken

Euskal Herriak Europako jaiotze tasarik txikiena dauka, eta bere atzetik Bulgaria eta Italia. Orain dala 30 urte, ordea, Euskal Herrian gehiago ziren jaiotzen zirenak hildakoak baino, heriotzen hirukoitza ziren jaiotzak. Horrela irakurri dezakegu Udalbiltzak (www.udalbiltza.net) kaleratu berri duen "Euskal Herria datuen talaia-tik" liburuan. Euskal Herria goitik behera aztertzen du, eta guk jaiotze datuei erreparatu diegu.

1962 eta 1976. urteen artean 50.500 ume jaiotzen zen, batez beste, Euskal Herri osoan urteko. Garai horretatik aurrera jaiotze kopurua jaisten hasten da. Azkar hasieran, motelago geroago. Horretarako hainbat argudio ematen da gaur egun, batetik 60ko hamarkadako ekonomiaren hazkundera aipatzen da, izan ere ekonomiak gora egin ahala umeen jaiotzek ere gora egin zuten sasoi horretan. 70eko hamarkadatik aurrerako beheranzko joera aztertzeke, ordea, badago arrazoi gehiago ere: bikoteak gero eta beranduago hasten dira alkarregaz bizitzen eta aldaketa kulturalak direla medio (tartean ekonomikoak ere) horrenbeste ume ez edukitzeko erabakia hartzen du bikote askok.

Mende berrian gorantz

70eko hamarkadatik aurrerako jaiotze tasaren murrizketan, badago zio gehiago ere: krisi ekonomikoak, emakumearen lan merkaturatzea, etxebizitzaren salneurrien



Larrabetzuko ume batzuk eskolako patioan

MERKATARITZA ZURE ZE

KOZOTECH
GOZOTECH

LAUBURU

HERRIKO PLAZA, 2
48160 DERIO - BIZKAIA TEL. 94 454 52 03

**CAFETERIA
CENTURION**

Espezialitateak:
gozari eta pintxoak

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
Telefona 94 452 10 49 - Zamudio

ATARRABI

ETXEMENARI, 14 48150 Sondika
Tfno.: 944 551 928

**CAFETERIA
IAZI**

Eguneko menua eta
Menu berezia

JATA KALEA, 2 - Telefona 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)

**CAFÉ-BAR
BIDE-GORRI**

Ero askotako pintxoak - Plator konbinatuak
5 €/Wineko eraketa

Torres Kalea, 9
48100 TAMUDIO (Bizkaia) Tel. 94 454 26 75

Amaketakako
Atertu las 2 dias de la semana

- Eguneko Menuak
- Kizkizkorrik
- Oliboko Erreta
- Karta Zurbela

Unbe Kalea, 1 Buj - DURIO
Tfno. 944 510 106

HERRIAREN KONTRA


hamar urteotako media bikoiztuz

gorakada, antisorgailuak ugaltzea... arrazoi ezberdinak dira.

Mende berriagaz batera badirudi, apurka-apurka, jaiotzeak ugaltzeko joera dutela. Lehenago 50.000 ume inguru jaiotzen baziren, 2001. urtean 26.079 izan ziren jaiotakoak Euskal Herrian (7 herrialdeetan beti ere).

Larrabetzun 100 biztanleko jaiotza bat baino gehiago

Bestelakoa izan da Larrabetzuko bilakaera. Grafikoan ageri den moduan, azken 10 urteotan (salbu 1993, 1996 eta 1998) urtero 15 umetik gora jaiotzen dira. Euskal Herrian 1990 eta 2000 urteen artean mila biztanleko 8,1 ume jaiotzen zen. Kontuan eduki behar da Larrabetzuko 1.500 biztanle inguru izan dituela azken 10 urteotan,



ARANTXA ITURBE AMATASUNAZ

Umeen jaiotzak begiratu, Bihotz Bakartien Klubak hitzaldi berezia antolatu zuen azaroan, Ai ama! liburuaren egilea gonbidatuz herrira. Arantxa Iturbe Euskadi Irratiko kazetari eta idazleak Ai ama! testua idatzi zuen duela urte batzuk, eta aurrean antzerki obra bilakatu da. Liburu oso irakurria izan da Euskal Herrian, eta konturatu garenez, baita Larrabetzun be. Bertan ama batek umea eukitzerakoan sufritzen dituenak kontatzen ditu idazleak.

Larrabetzun ordu eta erdiko hitzaldia eskaini zuen, eta 20 lagunetik gora batu zen literatura hitzaldira. Batzuk ama orain dela denbora gutxi izandakoak, eta beste batzuk sabelean ume barria zutela joan ziren hitzaldira. Arantxa Iturbek berak bbk-koei esandakoaren arabera, oso gustura aritu zen berbetan. Ai ama!-ka urten ziren danak hitzalditik.



eta erregela horren arabera, 12 umeko jaiotze tasa dagokiola Euskal Herriko datuei erreparatuz, baina askoz handiagoa izan da duda barik. 1992. urtean 1.478 lagun zegoen erroldaturik Larrabetzun, eta 2002ko urtarilaren 1ean 1.587 ginen erroldatutakoak. Gorakada bat, txikia eta progresiboa, baina ez umeen jaiotze tasarenaren bestekoa.

Ume asko jaiotzen dira bai Larrabetzun, horretaz ez da dudarik. Baina kezka be

sortu da. Eskolara bitarteko epe horretan zer egin behar dute gurasoek? Jagoteko lana itxi. Inguruko zentzoren batera sartu? Haurtzaindegiaren aldeko ekimena sortu da, baina momentuz ez dute instituzioetatik –Larrabetzuko udaletik behinik behin-ezer lortu. Bitartean, Galdakaoko ikastolan ez dago lekurik datorren kurtsorako 0 eta 2 urteko ume barrientzat.

Testua: Patxi Gaztelumendi

ERBITZURA GABONETAN

BIRIXI
Auzpeindegia eta Entziklar

Penstakoa, 6
48170 ZAMUDIO

Tel: 94 403 72 80
94 403 72 82

SINDIATU FERROKARRIEN
KIRULETAKU ZABARRIA
1919 IK

Nocho & Aitziber
Biritinaga

Penstakoa, 6
48170 ZAMUDIO

Teléfono: 94 403 72 81

CENTRO MASAJE

LASAI

Terapiak:

- Ultrasonido (Fonoterapia)
- Masajearioak
- Osteopatia
- Masaje
- Entresaca cervicobraquial

Clínica especializada en:

- Cines de regalo (Acrobacia)
- Deportes de la montaña
- Clásico deportivo
- Paracaidismo

7º Edificio, 4º planta
94010 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel: 94 403 72 82
Móvil: 605 74 24 07
Fax: 94 403 72 82
Email: lasai@telefonos.com

LEIRE BEGOÑA

ILEAPAINDEGIA

UNISEX ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM BERTIKALA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20 - TEL.: 94 454 26 32 DERIO

Ale-apaindegia

M^a Antonia Llodio

Tzaztaren etorbidea, 8
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Centro de Peluquería

Solarium
Masajearioak
Dietetika
Auzpeindegia berritua
Makillajea
Masaje berritua
Dietetika
Makillajea berritua

Nekazarri kalea, 1
Tel.: 94 452 13 84

Etxahun Lekue:



Etxahun Lekue txapelketa batean

"Nire buruagaz oso gustura egon naz txapelketa osoan zehar"

Etxahun Lekue. 22 urteko Iarrabetzuarra. Bertsolaria. Aurten Bizkaiko txapelketan Euskalduna jauregia ezagutu dau taula gainean. 5. postua lortuta, beragaz jarri gara berbetan, tabernan, aurrez aurre. Pozik da bera txapelketan egin dauan lanarekin, eta oraindik herrian jendea zoriontzen ari da. Lotsatia bada be, are barriagoa da alkarrizketak egiten. Baina, bertsotan bezala, gaia jarri eta bapatean erantzun dau berak.

Testua: Patxi Gaztelumendi

Zelan egon zinan Euskaldunan, 2200 lagunuen aurrean bertsotan?

Oso ondo. Lekua ikusi gendun saioaren aurretik. Hain handia, izugarria. Gero beterik ikusten dozu, horrenbeste jente. Gauza handia da benetan. Beste saioetan be jentea ibili da, baina Euskalduna... Inpresioa emoten du, baina eraginik ez. Tentsioa bai, baina aparteko nerbiorik ez.

Zer izan da txapelketa hau zuretzat?

Suposatu, hau izan da nire lehenengo finala. Nahiko salto handia da. Baina nik uste dot azken urte biotan ez dodala hobekuntza handirik egin. Aurreko txapelketa bietan finalaurrekoetara heldu nintzan, eta bietan oso gustura egon nintzan. Aurten be, finalera pasatu barik be oso gustura egongo nintzatekean. Oso saio ona egin neban Bermeon, eta oso gustura

geratu nintzan. Nire buruagaz oso gustura ibili naz, eta hori da garrantzitsuena

Zortzigarren sartu zinan finalera, justu antzean

Bai, baina Bermeon oso lasai geratu nintzan, saio on baten inpresioagaz. Getxoko finalaurrean ez neban espektatiba handirik. Baina pasatzea tokatu zan, eta aurrera.

ZORIONAK ETA



**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE IDIERRAK ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, kuadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
psiquiatria eta eskulariak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Fax: 94 453 16 77
48190 SONDIKA (Bizkaia)



LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Carlos Kales, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak

Tallerriz kalea, 5 ZAMUDIO
Telefono: 94 452 12 75

CARROCERIAS
TXORIERRI



José Antonio Sanz

TXAPA ETA LABE-PINTURA

Enkarragotzi poligonoa
Vial sur D-15, New RS 1
48016 ZAMUDIO (Bizkaia)

GARRAIOLARIA



Miguel Angel Lekue

ANDRA MARI, 19
LARRABETZU
Tfnoa: 94 455 80 20

Eta boskarren geratu zara

Egia esan, egun horretako postuari ez neutsan garrantzia handirik emon, inork galdetu arren, ez neuke erantzuten jakingo. Ofiziotan ondo ibili nintzan, gustura, baina bakarkakoan txartoago beharbada. Baina konforme nago postuagaz, espero nebana baino hobeto.

Finalean, lagun talde bat batu zari

Bai, kontuan euki behar da, finala finala dala. Badago tentsio bat eta gauza asko jokoan, batez be txapela. Baina gure artean oso giro ona egon zan. Berbaz ibili ginen, alkarri laguntzen...

Danak be, nahiko gazteak izan gara aurten. Gainera lortu dogu 79ko belaunaldiko bat finalean sartzea, urte horretakoak gara Onintza Enbeita, Beñat Ugartetxea, Joseba Gojenola... eta azkenean bat finalean sartu da. Baita gazteagoak be, kasurako Igor Muniategi, 20 urte eta finalean, sekulako seguridadeagaz, bertsoan oso ondo. Bera izan da txapelketa guztiko gazteenetakoa ganera.

Larrabetzun be, somatzen da giro bat bertsoaritzaren inguruan ezta?

Bai, egia esan kanporaketa guztietara joateko jentea batu da. Kotxe bi gitxienez

beti betetu izan dira. Hori oso pozgarria da. Finalean be 50 lagunetik gora egon ziran herrikoak. Dana dala, ni joango nintzan jakin aurretik, 40 sarrera baino gehiago salduta egozan. Bertsolaritza sartuta dago herrian, egiten diran ekintza guztietan presente dago, eta jentek oso ondo erantzuten dau. Goizaldean be, lantzean behin bertsoak entzuten dira gurean...

Larrabetzuko bertso eskola be martxan dabil, eta orain Algortakoagaz eta Mungiakoagaz gauza gehiago egingo doguz alkarlanean. Txapelketa bat be badarabilgu buruan, talde mailan eginda. Hor oso inportantea da Algortakoak egin dauan lana, hain giro erdaldunean horrenbeste bertsolari sortzeko. Uribealdeko giroa suspertzen dabil, eta lagun arteko saio gehiago antolatzeke asmoa daukagu.

Zelan bizi dozu gaur egun bertsoaritzan?

Bertsolaritza, orain dala urte bi bezala bizi dot. Nik ez daukat helburu moduan urtean 100 saio egitea, ni oso gustura nago bertsoan, lagunarte ederrean. Egia esan, sano gustura nago nabilen moduan, oso lagun onak egin dodaz honetan, eta hori aldatzen danean, gustura ez banabil, itxi eta fuera.

GAZTEA ETA JATORRA

Telefonoak jo du. Hartu eta Xabier Amuriza da telefonoz ari zaidana. -Hi, Patxi!- bota du Berrizeko bere etxetik. -Bai, Xabier- nik Larrabetzutik. Eta bertso kontuak ekarri ditu. Zelan ez. Etxahun izan dugu hizpide. Pozik da bera. Bermeon ikusi zuen kantatzen, eta gero Euskalduna jauregian, Bilbon. Final aurretik aipatu zidan paper polita egin zezakela, Durangon elkar ikusi genuenean. Orain gauza gehiago komentatu gura izan ditu. Bertsoak, hizkuntza, planta, zuzentasuna, heldutasuna ekarri ditu gogora Etxanokoak. Eta adi entzun diot maisuari. Baiezka erantzun gura diot guztuari, baietz. Berak ez nau ikusten, baina burua astintzen diot. Baietz.

Etxahun oso ondo aritu da txapelketa honetan. Uda aurretik Getxon eskualde mailakoa irabazi zuenean bertso ederrak bota zituen. Ondo gogoan ditugu oraindik. Mallabian ere erraz gailendu zen kanporaketan. Bermeon bertso saio oso ona egin zuen, poto bat gora behera. Eta hor arrazoia damaigu Amurizak. -Bai, Bermeon finalean baino hobeto ibili zuan, baina hori normala dok- baiezkatu du.

-Eta zenbat urte jekozak Etxahunek?

-Ba gaztea dok ondiño, 22 baino ez.

-Horrek eingo jok!

-Bai, ba.

Etxahunek egingo du, gogoetarako. Horretarako bertso koadrila ona inguratu du, herrian eta kanpoan. Maisuak ez zaizkio falta. Lopategi ugari bazterrotan. Baina, beti lez badaki, inori kasurik egin ez, eta berea egiten. Horretan iaioa da. Baina ezereen gainetik, Etxahun gaztea eta lagun jatorra da. Eta hori esango dizu Euskaldunan bere ezker eskubi egondako Fredik edo Beñatek. Bere bi lagun on. Hori esango dute plazan ezagutu duten bertsolariak, edo bere bertso ikasleek. Etxahunek badu ere gazte izatearen kontzientzia, kezka. Gazteen alde ari da lanean, gazte mugimenduan, jator. Gaztea eta jatorra, Etxahun.

ZORTZIKO TXIKIA

Bertsolari bat Unai Iturriaga.

Bertsotarako leku on bat Larrabetzuko Hori Bai gaztetxea.

Eta nogaz Konfiantzako lagunakaz, Beñat Ugartetxea esaterako.

Doinu bat Eustakio Euliren "Zortzi nobio", Fredi Paiagaz txapelketan erabilitakoa.

Errima on bat Giroa beroa aroa geroa

Gai bat Oso ona izan zan finaleko azkena: "Gabon gauean bakarrik zagoz afaltzeko, eta plater bi ipini dozuz mahai gainean".

Bukaera on bat Alkarrizketak egitea ez da / nire dohai handiena

URTE BERRI ON



AUTOEN IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAHEN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti Ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



itv ARRIGORRIAGA
Bilbo - Zaragoza autobidea
A-68 Km. 6,5
Kontsultetarako Tel.:
94 671 17 73

itv ZAMUDIO
Ugaldeguren I Industrialdea
8. Partzela
kontsultetarako Tel.:
94 452 20 20

IBILGAILUEN AZTERKETA TEKNIKO OFIZIALA

ALDEZ AURREKO TELEFONOA 94 452 11 13

SUTONDOAN ETXEKO ANDRE TALDEA: 10 URTE GURE ARTEAN

Hamar urte. Zenbat da hamar urte? Asko, esango dabe batzuek. Gitxi, beste batzuek. Nahikoa, gauzak aldatuten hasteko, dinoe Derioko andreek. Azken 10 urteotan gauza asko aldatu dira Derion, bideak, udaletxea, etxebizitzak, tabernak, abadeak... eta, zelan ez, andreak. Andreak batez be. Herriaren alde, herriarekin, herriatik, herrikoa, herrian eta herriatik kanpo, herriari euren ekarpena emon gurean eta sutondoan egotea baino zeozer gehiago ebelako buruan. Honexegaitik sortu zan 1992an Derioko etxeokoandre taldea, sutondoan. Andre talde baten kezka eta egonezinari erantzun aproposa emotea eukan helburu, eta ondo lortu be!!

Aikorreko abenduko honetan talde honen 10 urteurrenaren barri emon gura deusuegu. Data berezi hau behar dan moduan ospatuteko arratsalde-gau giroko jai bat egitea pentsatu dabe. Abenduaren 14an, zapatuz, arratsaldeko 7etan hasi eta batek daki ze ordurarte, 10 urte luze-labur honeetan egin eta antolatu dabezan jarduera, kanta, antzezlan, berbaldi, bidaia eta ikastaroen bilduma baten bidez, talde honen joan-etorriak ezagutzeko aukerea euki dogu. Gogo handiz ibili dira euren urteurrena prestatzen, gonbidatuentzako agurra, egindako lanen aurkezpena, tarteka antzezlan eta kantaren bat, besteak beste.



Sutondoan taldeko emakumeak irteera batean

Derioko institutuko areto nagusian ospatu dan ekitaldira joan danak istorio polit bategaz topo egin dau, gaurko gizartean andreen tokia eta euren arteko alkartasuna aldarrikatzen dauan ipuin interesgarria. Eta ganorazko filmek eukiten daben moduan, hemen be, laguntzaile lanetan ibili izan diranentzako eskerronak eta txaloak egon dira.

Amaitzeko, euren omenez konposatu daben ereserkiak gozatu ahal izan dogu, emakumeon adorea adierazgarri. Horra hor hasikerea:

SOMOS MUJERES Y LAS MEJORES.....

Testua: Fernando Larrondo

GURE EDARIAK GABONETAN ERE

TORREKO TXAKOLINA

1883-TIK TXAKOLINGILEAK
TORRE BASERRIA
Aretalde sultza
48196 LEZAMA
Bizkaia

José Antonio Doñabeitia ☎ 94 473 15 34
Pedro Maria Doñabeitia ☎ 94 676 05 20
Bodega ☎ 94 455 62 39

TXAKOLINA
LUISERRE

119 Ndl. 75 cl.

Gurindua, 87
Tf: 94 455 65 41 Biskaiako Txakolina.
670 87 37 36

Victor Ganzo Gazoitak bidia, peonata eta botilaztasun.

LEZAMA-112/111A
N.R.E. 4814033/181

Magalarte txakolina

1879ko Lezama-ko Txakolina-ko sultza

1879ko Lezama-ko Txakolina-ko sultza

Biskaiako Txakolina
Tasari: 94 455 43 96

Bodega Ortu-ondo, s.a.

BIENIKER
DUKLER
NIEVA
CORNELL
KARNEL
RIOGA HEREDAD UGARTE
CIGALES VIÑA DUM
ESPATROAG MUEJADARIK
PARRISOLINGUO ARDINK
SALIBROAK
TUCUAK
EIB MENDIARAK

Ugaldeguren II Ind. 170 - Tfno: 944 521 500 - Fax: 944 523 000
48170 ZAMUDIO

Aikor!

txorierriko aldizkaria

URTEBETE KALEAN

Pitika-pitika, astrapalarik atera barik, aikor noraino aile-gau dan Aikor! aldizkaria! Hamabigarren alea kalean da dagoeneko. Iazko abenduan agertu zan 0 zenbakia, baina hasiera haretan hainbestearaino egon ginan lanpetuta, ezen astirik be ez gendun atera aldizkaria txorierritarrai aurkezteko. Orduko hutsune hori betetearren, Txorierriko erakunde eta alkarte guztiai dei egin deutsegu aldizkariaren aurkezpenera eta urteurrenereko ospakizunetara etorri daitezcan abenduaren 19an Lezamako txokora.

Ospakizunotara gonbidatu doguz hamabi zenbaki honeetan zer edo zer idatzi daben guztiak. Aldizkariako kolaboratzaile guztiak zenbatzen hasi eta hara non, guztira, 40 izan diran! Kopuru horrek argi erakusten dau hain denpora laburrean zein sendo bota ditun sustraiak aldizkariak! Beraz, hartu daiela danak geure esker ona!

Eskerrak emoteko orduan ezin doguz ahaztu aldizkariaren publizitatea ipini daben denda, lantegi eta alkarte guztiak. Aldizkari honek aurrera egin badau, neurri handi batean, eurei zor jake.

Aldizkariaren argitaratzailea TOTOAN Txorierriko euskara elkar-

teen federazioa da, baina haren atzean Arrekikili, Lagatzu eta Zorritzetan dagoz, izan be, euskera alkarteok dira aldizkariaren benetako bultzatzaileak, aldizkaria geure herrietan euskera sustatzeko erremintatza hartu dabenak.

Erakunde publikoen artean be badagoz euren laguntasuna emon deuskuenak. Eskerrak, beraz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Sailari eta Eusko Jaurlaritzari. Ea hemetik aurrera Txorierriko erakundeak haren moduko erantzuna emoten deuskuen!

Urtebete egin dogun honetan akordura etorten jakuz aldizkari honetan igarotako ezin konta ahala orduak, proiektua prestatzeko Topaguneagaz eginiko batzarrek, aldizkariari oinarri juridikoa emateko asmoz Totoan federazioa eratzeko lanak, 0 zenbakia kaleratzen pasatako estatusunak, diru-laguntzak eskatzeko han eta hemen eginiko urratsak, aldizkariaren azpiegituren prestaketak, aldizkari bakoetako gaiak eta tratamendua zehazteko bilerak... Halan eta guztiz be, merezi izan dauela uste dogu.

Amaitu baino lehen, Txorierriko biztanle eta alkarte guztioi eskatu gura deusuegu zeuen inguruan sortzen diran albisteak edo egin gura dozeuzan deialdiak guri jakinazoteko, aldizkariaren bitartez zabaldu daiguzan. Ea danon artean hobatuten dogun aldizkaria!



URTEBETE ONDOREN, TXORIERRITARRAK AIKOR! AZTERTZEN DABE



Ander Isasi (Loiu) Derioko institutuko soinketa irakaslea

Txorierrin halako lana egitea oso interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zait. Nire ustez, egun, herriek elkarrekin lan egin ezean, ez dute indarrik edukiko. Orduan, guk mankomunitate lez funtzionatu behar dugu, askoz indar handiagoa izateko. Aikor!-ri esker, herrien arteko lotura apur bat estutzea lortzen da.

Beste alde batetik, aldizkariaren bitartez gazteen nahiak eta ideiak zabalduz gero, euskal eredia ere Larrabetzutik Sondikara zabalduko delakoan nago. Hori mesedegarria izango da guztiontzat.



Lourdes Lasuen. Euskara Teknikaria

Aldizkaria oso ondo dago, herri guztietako berriak ematen dituzenez bertoko errealitatea oso gertutik ikusten delako. Gainera, informazio hori euskaraz jasotzeko eskubide osoa daukagu eta, horrexegatik, halako proiektuak bultzatu egin behar dira. Aikor! aldizkariak bi helburu horiek betetzen ditu.



Mª Sol Bilbao (Sondika) Larrabetzuko eskolako andereñoa

Izugarri gustuko dut aldizkaria. Txorierriko gauzez hitz egiteaz gainera, jende ezaguna agertzen denez oso hurbila da. Horrela, Txorierriko herrietako bizitza batzen da. Halaber, historia egungo gertakizunekin eta iritziekin lotzen da. Alfabetatzeko tresna baliagarria ere bada. Halako proiektuak bultzatu behar dira oso beharrezkoak baitira herrietarako.



Iñaki Dobaran (Zamudio) Alkate ordea, kultura zinegotzia

Aldizkaria beharrezkotzat jotzen dut Txorierriko herrietan gertatzen dena etxera hurbiltzen digu eta. Orduan, albisteak jasotzeko ez ezik herrien arteko harremanak hobekuntza izateko ere halako proiektuak bultzatu behar direla pentsatzen dut. Era berean, euskara sustatzeko modu egokia da. Normalean, jendeari euskaraz irakurtzea kostatzen zaio eta Aikor! dela eta, ahalegina egiten du beste herrietan zer gertatu den jakiteko. Hori guzti hori kontuan hartuta, iniziatiba ona dela pentsatzen dut.



Begonia Vicario (Larrabetzu) Zinemagilea eta EHUko irakaslea

Aldizkaria agertu zenean egundoko ilusioa hartu nuen, txorierritarrok elkarren berri izateari oso garrantzitsua diritzot eta. Honela, Txorierriko komunikazioa erabat piztuta mantenduz gainera, hurbilak diren gauzez enteratzen gara. Gainera, ezagunen bat agertuta ilusioz irakurtzen duzu aldizkaria. Nire ustez, Aikor! desagertuz gero, faltan sumatuko genuke. Izan ere, irakurtzen ditugun gauzak beste mundukoak ez badira ere, gure esparruan gertatzen dira eta haietaz ohartzea oso inportantea da.

Isabel Llona (Sondika) Udal Euskaltegiko langilea (argazki barik)

Nire ustez, aldizkaria oso ondo dago hemengo euskara erabiltzeaz gain, Txorierrin gertatzen diren berriak aipatzen direlako. Gainera, jende ezaguna agertzen da. Beste alde batetik, baserri-tarrei ere heltzen zaie aldizkaria eta haientzat aberasgarria izan daitekeelakotan nago.



Belen Mellado (Derio). Zamudioko eskolako zuzendaria.

Aikor! aldizkaria oso interesgarria iruditzen zait, batez ere Txorierriko gauzak agertzen direlako. Izan ere, normalean egunkarietan ez da bertoko informaziorik argitaratzen. Beste aldetik, halako proiektuak euskara aurrera joateko beharrezkoak direla pentsatzen dut. Eskolan ahalegin handia egiten bada ere, gehienetan gaztelerara jotzen da telebista ikusi edo egunkaria irakurtzeko orduan. Era berean, gazteentzat garrantzitsua dela uste dut. Klasetik atera ondoren, batzuek euskararekin harremanik ez dute eta Aikor! hutsune hori betetzeko modu bat da.



Udane Goikoetxea (Derio) Bizkaia Irratiko kazetaria

Txorierriko herri guztiak zein informazioa batzeko oso egokia deritzot aldizkariari. Hainbat hedabidetatik Bizkaiko albisteak jasotzen baditugu ere, hemen beste era bateko hurbiltasuna ematen da. Hori aurrerapauso handia da. Horrela, trena ez da gure arteko komunikazio bakarra Txorierrin, aldizkari honek ere batzen gaitu.

Edukiari dagokionez, nahiko landuta dagoela pentsatzen dut. Dena den, Aikor!-ek urtebete baino ez du eta, apurka-apurka, informazioak

landuagoak izango dira. Oraingoz, aldizkaria bide onetik doala pentsatzen dut.



Jon Ciarsolo (Derio) Kultura zinegotzia

Bazen garaia Txorierrrik herriko aldizkaria izateko! Gainera, euskaraz eta bailarako herri guztiak hartuta. Nire ustez, jendeak atsegina du Aikor!. Udaletxean gertatzen dena baino ez da ikusi behar: aleak erakusmahai gainean utzi eta ziztu bizian desagertzen dira. Gure alboan gertatzen dena jakiteko herri komunikabideak beharrezkoak direla pentsatzen dut. Hortaz, halako iniziatibak bultzatu behar dira. Aikor! oso proiektu ona da bailarako herriak batzen baititu.



J e s u s Aurrekoetxea (Loiu) Loiu Pentsiodun eta Jubilatuen Gure Etxea elkartearen presidentea

Aikor! Txorierrirako hedabide egokia iruditzen zait. Alde batetik, euskara bultzatzen duelako, eta, beste aldetik, hemengo berriak kaleratzeaz gainera, kultura taldeek eta elkarteek egiten dituzten ekintzen berri ematen baitu.

Iñaki Gaztañaga Loiu alkatea



Nik gustura irakurtzen dut aldizkaria. Halako iniziatibak Txorierrirako positiboak direla pentsatzen dut. Izan ere, herri guztietako berriak ekartzeaz gain, euskara bultzatzen du. Nahiz eta Txorierrin oso euskalduna dela esan, euskararen erabilpena nahiko eskasa da kalean. Orduan, euskararen alde egiten diren pauso guztiak beharrezkotzat jotzen ditut.





Roberto Unzueta Zamudioko eta Derioko parrokoa

Hasteko, urtebeteko ibilaldia egiten dauan aldizkariari zorionak emonaz hasi nahi dot. Aikor! aldizkariaren egitura kontutan harturik, euskaraz irakurri eta euskaraz pentsetako bide ona dala esango neuke. Lehenengo eta behin, bertoko gaiak irakurlea era apartekotan harrapatu egiten dau; bestalde, gaien azalpenak labur egiten dira, errez irakurteko eran. Arlo bi honeek garrantzi handikoak dira, batez ere, umetatik euskereagaz alfabetatu ez diranentzat. Halaber, nahiz eta nik hemengo bizitza larregi ezagutu ez, badirudi Txorierrik bere nortasuna dauala eta bertoko herriak bailara zentzua dabela. Edozelan ere, honetariko aldizkari batek lotura handiagoa emoten dautso toki bateko eta besteko barriak eta gertaerak herri danetara zabaldu orduan. Beste aldetik, aldizkaria euskaldun danentzat pentsatuta badago eta denak parte hartzeko aukera zabalean jartzen bada, alkarte lan egokia egin daikela esango neuke. Nire ustez, halako iniziatibak beharrezkoak dira herriarentzat eta elizeak ere herri bizitzan eta herri kultura bideetan sartu-sartu eginda egon behar dau.



Belen Gana (Loiu) AEK-ko Txorierriko arduraduna

Aldizkaria oso urrats inportantea izan da Txorierrirako. Izan ere, euskarak elementu asko behar ditu normalizatzeko. Horretarako, oso garrantzitsua da hedabideak euskaraz izatea. Gure kasuan, herriko aldizkaria edukitzea ezinbestekoa da beste herrietan gertatzen dena jakiteko. Honela, harremanak sustatzeko oso modu ona da. Beste alde batetik, egunear-egunear aldizkaria hobetuz doa. Erakargarritasuna zaintzen da eta bai berriak bai gai interesgarriak bilatzen saiatzen dela nabaritzen da.



Alberto Cristobal (Sondika) Batasuneko zinegotzia

Urte askotan, zerbait faltan izan dugu Txorierrin eta Aikor!-ek hutsune hori bete egin du. Nire ustez, aldizkariak oso garrantzitsua den aspektu bat lantzen du: bizkaieraren erabilera. Izan ere, guk bizkaiera zaindu beharko genukeela pentsatzen dut.

Beste aldetik, Txorierrin osoan banatzeari eta Txorierrin osoko albisteak tratatzeari, puntatik puntara, garrantzi handia ematen diot, beste herriekin harremanetan jartzen gaitu eta. Horrexegatik, bai jendeak bai instituzioek aldizkaria laguntzea ezinbestekoa dela pentsatzen dut. Azken batean, aldizkari honek ez dauka helburu ekonomikorik, baizik eta euskararen bitartez kultura zabaltzea eta mantentzea.

Beste aldetik, Txorierrin osoan banatzeari eta Txorierrin osoko albisteak tratatzeari, puntatik puntara, garrantzi handia ematen diot, beste herriekin harremanetan jartzen gaitu eta. Horrexegatik, bai jendeak bai instituzioek aldizkaria laguntzea ezinbestekoa dela pentsatzen dut. Azken batean, aldizkari honek ez dauka helburu ekonomikorik, baizik eta euskararen bitartez kultura zabaltzea eta mantentzea.

Arantza Zarate (Lezama), Lezamako Baseritarren Elkarte

Nahiz eta batzuetan dena ulertu ez, aldizkaria irakurtzen saiatzen naiz. Euskara bultzatzeko zein elkarren berri izateko bide egokia dela pentsatzen dut. Guztiok Aikor! lagundu beharko genuke.



Aitor Apraiz (Derio) Udal Euskaltegiko irakaslea eta Ipar-Alde abesbatzaren partaidea

Herri komunikabideak beharrezkoak dira zure inguruan gertatzen diren gauzez ohartzeko. Zentzu honetan, Aikor! aldizkaria oso ondo dago. Era berean, egokia da ikasleek bere kabuz irakurtzeko zein klasean lantresnatzat erabiltzeko.

Josu Aurekoetxea (Lauroeta) tabernaria

Aldizkaria oso ideia ona dela uste dut. Nahiko ondo dokumentatuta dagoenez, gauza askotaz enteratzen gara. Horrexegatik, gazteentzat baliagarria dela pentsatzen dut. Izan ere, askok ez dute Txorierriko informazio nahikorik eta, aldizkariari esker, datu horiek osa ditzakete.

Ruben Glera (Zamudio) SD Zamudioko lehendakari ordea eta dendaria

Nire ustez, Aikor! aldizkaria garrantzitsua da zeren Txorierriko kultur taldeek antolatutako ekintzen berri ematen baitu. Ondorioz, jende gaztea, jakinaren gainean egonda, hainbat aktibitateetan parte hartzea anima daiteke.



Lide Gaztelu (Larrabetzu) Gaztelumendi abesbatzaren kantaria

Oso pozik nago aldizkariarekin. Izan ere, Aikor!ri esker, Txorierriko gauzez enteratzen naiz. Gainera, herriko taldeetako ekintzen berri emateko oso inportantea da.





Juan Miguel Abutege Derioko alkatea

Aikor! oso aldizkari interesantea da. Egia esan, euskaraz egiten diren aldizkari guztiak interesgarriak dira, batez ere, euskara bereziaz idazten direnak, hau da, bizkaieraz. Izan ere, adineko edo baserriko jendeak ez du oso ondo batua ulertzen eta haientzat mesedegarria da bizkaieraz eta, gainera, modu errazaz idaztea. Era berean, euskarazko inizatiba guztiak ez daude soberan eta bultzatu behar dira, guk gure hizkuntza bultzatzen ez badugu, inork ez baitu egingo. Azkenean, Aikor! aldizkarian era guztietako jendeak parte hartzea oso aberasgarria dela esan nahi dut.



Idurre Aretxabaleta (Lezama) Gurutze taldeko txistularia

Ideia ona izan da Aikor! kaleratzea, batez ere, guretzat hurbilak diren berriak argitaratzen ditu eta. Era honetan, Txorierriko beste herrietako jendearekin kontaktua mantentzen dugu eta hori guztiz beharrezkoa da. Gainera, bizkaiera lantzen du, gauzarik garrantzitsuena nire ustetan, mundu guztiak irakurri ahal izateko.



Sira Elorriaga (Derio) Sutondoan elkar-tearen presidentea

Elkartearen ustez, ez da inoiz Txorierriko taldeei buruz Aikor! aldizkariak beste hitz egin duen argitalpenik egon. Aktibitate guztiak ezagutarazteko modu egokia dela pentsatzen dugu. Hala ere, euskara hutsean izatea pertsona batzuentzat ozttopoa dela uste dugu.



Jaime Uriarte (Lezama) Lezamako Pilota Eskolako presidentea

Euskarak aurrera egiteko tresna ezinbestekoa da Aikor!. Gainera, bailaran gertatzen diren berriez eta kultura eta kirol taldeek egiten dituzten ekintzez ohartzeko oso inportantea da. Zentzu honetan, Aikor!-ek informazio osoa, lehen ez zegoena, ematen digu txorierritarroi.

Jose Antonio Loroño (Lezama) ingeniaria

Sortu zenetik orain arte, aldizkariaren prozesua nahiko ona izan dela uste dut. Izan ere, gaiak ugariak izateaz gain, landuagoak dira. Gehien gustatzen zaidan atala txorierritarren iritzia da, jende ezaguna agertzen delako.

Arkaitz Orozko (Zamudio) Derioko institutuko ikaslea

Nire ustez, aldizkaria hobe liteke gauza interesgarriagoak jarritz: kirola, jaiak, Txorierriko taldeei buruzko informazioa...

ABENDUAREN 29AN
Eguerdiko 12:00etan
DERIOKO KIROLDEGIAN



EUSKAL DANTZAK

ESKUALDEKO
DANTZA TALDEAK
DERIOKO LAINOMENDIREKIN BATERA

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON
LAINOMENDI TALDEA - DERIO

 **UMEENTZAKO
MODA**
Tximeleta

Giernikako Arbola, 8
Telefonos: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia



BAR TXIKI

Lehedakari Leizaola, 6
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
Tel. 94 452 04 68



Juan Luis Goikoetxea (Derio) Txorierrri institutuko irakaslea eta euskaltzain urgazlea

Lehenengo eta behin, aldizkaria euskaldunen munduan sortzea pozgarria da. Gu urte askotan gabilta euskara irakasten, euskararen legeak 20 urte egin ditu eta asko ikasi da, baina akatsa eta arazoa erabileran dago. Horrexegatik, gure ustez, guztiz garrantzitsua da esparru berriak eskolatik kanpo sortzea. Kasu honetan, Aikor! aldizkaria sortzea. Hau dela eta, gazteek kanpoan badaukate beste esparru bat euskal munduan bizi dena.

Beste aldetik, Aikor!-ek ahalegin handia egiten du Txorierriko betiko euskaldunak eta euskaldun berri gazteak euren artean harremanetan jartzen, belaunaldien arteko etenik egon ez dadun. Honetaz gain, Aikor!-en bitartez euskara normaltze prozesuan dagoela erakusten da.



Gonzalo Mateo (Lezama) botikaria

Diseinu eta edukiaren aldetik oso aldizkari ona dela pentsatzen dut. Normalean, aldizkari osoa irakurtzen saiatzen naiz, batzuetan ulertzen dut gehiago eta, beste batzuetan, gutxiago. Aikor! elkarrekin komunikatzeko tresna da.



Monika Gerediaga (Lezama) botikari laguntzailea

Ikusi nuen lehenengo aldia oso gustuko izan nuen. Orokorrean, ematen diren informazioak interesgarriak dira guretzat. Aldizkari honetan irakurri ezean, ziur ez ginatekeena enteratuko.



Tomás Undabarrena (Larrabetzu) Uritarra Futbol Taldearen presidentea

Gaur egun, kirol taldeak apur bat galduta daude eta birpizteko zer edo zer behar dute. Aikor! aldizkaria hori lortzeko tresna bat da.



Ines Menika (Larrabetzu) Dendaria

Aldizkariak Txorierriko informazioa emateaz gain, zure publizitatea jartzeko aukera ematen dizu. Dendariok lagundu behar diogu Aikor!-ri.

Osane Flaviano (Sondika) Kultura zinegotzia

Txorierrin bertan aldizkari bat izatea oso inportantea da. Alde batetik, euskara bultzatzen delako, eta, beste aldetik, herrien berri edukitzen dugulako.



Floristeria Jordin
 Floristeria Jordin
 Avenida de la Libertad, 10
 48100 Zamudio (Bizkaia)
 Tfn. 94 452 1616



ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
 94 452 1624

Pol. Torrelagotti
 Pab. 6, Bloque 3
 48170 ZAMUDIO
 BIZKAIA

**ESPEZIALITATEA:
 TXAPA ETA PINTURA**



electricidad derio *elektrizitatea*
 Monseñor Larrabetzu • Equipo eléctrico • Instalaciones • Mantenimiento

Avenida Kalea, 1 • Tfn. / Fax: 94 454 31 48 - 48100 DERIO (Euzkadi)



Joyería Zorion Bitxitegi
 (Erlaiojendak - Tailerra)

Herrera Plaza, 1
 Tfn. 954 13 30

48100 Derio
 Euzkadi



dribbling sport

KIROL ENTIAMENDURAK
 FUTBOLA - GAKIHALAIA
 ATLETISMOA - GIMNASIA
 HOLEBESKURTUTIA - ZAKARRAK
 GANAKURRERAK - DOMINAK
 KIROL OROKORRA

AIZKORRI KALEA, 1
 TELEFONOA 94 454 13 01
 48100 - 48100 (Derio)



Aintzina Lekue (Larrabetzu) zinegotzia

Herri taldeek aldizkaria sortu dutenez herriengandik oso hurbila da. Horregatik, agian normalean euskarazko aldizkaririk hartzen ez duen jendeak Aikor! irakurtzen du, herrian gertatzen dena jakiteko. Hau dela eta, euskara bultzatzeko modu egokia da.

Beste aldetik, aldizkaria zabala da. Izan ere, gutunen zein kolaboratzaileen bitartez nahi duenak parte hartzeko aukera dauka.



Jose Luis Larrea (Sondika) Sondika CD-ko presidentea

Txorierriko klubek gazteriaren artean kirola bultzatzea dute helburu. Orduan, herriko aldizkariak klubena ezagutaraztea gauza interesgarria dela pentsatzen dut.



Sabin Askolizaga (Sondika) aseguru agentea

Aikor! aldizkaria euskara zabaltzeko tresna bikaina da. Halako inizatibak bultzatu behar dira bailaran gertatzen dena txoko guztietara hel daitezen.



Nekane Zabala (Zamudio) Dendaria

Herriko komertzioak halako proiektuetan inplikatu behar ditugu euskara bultzatzeko beharrezkoak baitira. Halaber, gure hizkuntza bultzatu ez ezik erabili ere egin behar dugu. Adibidez, guk, dendan, dakienari euskaraz hitz egiten diogu eta ez dakienari gauzak batzuk esaten dizkiogu euskaraz: egun on!, agur!...

Jesus Landa (Sondika) dendaria
Dendariok Aikor!-ri lagundu behar diogu zeren eta euskara komertzio barruan zenbat eta gehiago bultzatu gero eta gehiago zabalduko da. Era berean, aldizkariak guri laguntzen digu. Adibidez, Zamudioko jendea etorri zait eskulanak egiteko materialen bila, dendaren iragarkia aldizkarian ikusi dute eta.

**AIKOR!
ALDIZKARIAK
URTE BARRI ON
OPA DEUTSUE**

AVELINO ARRANDEGIA
ONDO PASA JAJETAN
Mikel Druina kalea - Tlfnoa: 94 454 11 19
Gorbea, 4 - Tlfnoa: 666 66 36 09
DERIO

ikasi, edonola egin dezakezu
euskara ikasteko baina,
hobe duzu aek-ra etorri
euskara ikastaroak
zure euskara
berrindartzeko eta
zure asterketa
prestatzeko

aek
izena eman

**txorierriko
aek euskaltegia**
tel. 944 543 967

10€ ren
...eta galnera aprobetxatu itzazu txartelak, Euskal Herri osoan, emango dizkizun abentelak

**korrika
LAGUNTZAILEA**

Izen zaitoz

...eta galnera aprobetxatu itzazu txartelak, Euskal Herri osoan, emango dizkizun abentelak

GAZTEAK BE BADAUKIE ZER ESANIK



Mikel Martinez eta Alaitz Ziordia (Zamudio) Gazte Asanbladakoak

Aikor! oso proiektu polita eta interesgarria da, beste aldikari batzuetan publikatzen ez diren berriak agertzen dira-eta. Gainera, jende askok parte hartzen du eta Aikor! gero eta aberatsagoa dela ematen du. Ale berria noiz helduko den zain gaude beti.

Euskara hutsean izatea oso positiboa da zeren euskaraz egiten diren gauzak gutxi baitira, batez ere, Txorierrin. Ondorioz, euskararen zabalkuntzarako oso tresna baliagarria da. Hala ere, nahiz eta batzuetan jende gaztea agertu, aldikariak ez dauka gurekin lotura zuzenik. Ez legoke txarto gazteontzako zerbait berria ateratzea.



Gorka Mugarza (Larrabetzu) Ikaslea eta Bihotz Bakarti Klubeko kidea

Nahiz eta Txorierriko herriak elkarren ondoan egon, harreman gutxi daukagu. Orduan, aldikariak beste herrien berri izateko posibilitatea ematen digu. Honetaz aparte, euskararen alde egiten diren behar guztiak gutxi direla pentsatzen dut. Hau dela eta, euskarazko aldikaria ateratzea ezinbestekoa da, ez nahikoa, baina bai beharrezkoa.



Ixone Zubieta (Derio) Lainomendi taldeko dantzaria

Nire ustez, Aikor! aldikaria inportantea da euskaraz gauza gutxi egiten da eta. Gainera, herriko aldikaririk egon ezean, jendea ez litzateke enteratuko Txorierrin gertatzen diren gauzez edo hainbat taldek egiten dituzten ekitaldiez. Etxean, guztiok irakurtzen dugu Aikor!.

Ainara Barba (Zamudio) Txorierrin institutuko ikaslea

Aikor! aldikaria ondo dago, gauza interesgarriak agertzen dira eta. Txorierriko gazteak da gehien gustuko dudana atala haien iritzia emateaz gain, jende ezaguna agertzen delako. Atal berria izanez gero, gazteoi zuzenduta egon beharko luke. Izan ere, guk gustuko dugun informazioz ez dago aldikarian, esate baterako, zer egiten dugun gazteok asteburuetan edo zeintzuk diren gure arazoak.



Jessica Vazquez (Zamudio) Txorierrin institutuko ikaslea

Nik gehien gustuko dudana atala umorearena da, txisteak oso barregarriak dira eta. Dena den, gazteentzako atal berria zabalduko nuke, adibidez, musika atala.



Garazi Ayala (Sondika) Txorierrin institutuko ikaslea

Aldikaria oso ondo dago. Hala ere, kritika egin nahi nioke: gazteoi interesatzen zaigun gauzarik ez da agertzen eta interesgarria izango litzateke guretzako atal berezia jartzea.

Miriam Ruiz (Sondika) Txorierrin institutuko ikaslea

Egia esan, aldikarian datozten gaiak ez dira nire gustukoak. Hala ere, Txorierriko jendearen iritzia irakurtzen dut normalean ezagunak agertzen direlako.



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Telefonari Plaza, 1 - 17 A
URKIO

Telefona: 944 545 705

CLINICA DENTAL

ZAINDUZ

HORTZ KLINIKA

Jesus Enrique Lopez Hidalgo
Odontologo

Dr. D. Manuel Serra Cabrera
Ortodontzia

Enfermería: 944 545 705
Farmacia: 944 545 705
Tel.: 94 545 03 03
48150 ZAMUDIO (Bizkaia)

San Juan Hortz Klinika



- Implanten eta kirurgia
- Odontologia orokorra eta estetikoa
- Hortz osatzea
- Fisioterapia
- Txoko hurrezko erabilerak

ASURKURU TXARTELAK
Aurkeztu Duzun Gaitza Gurekin Gurekin

San Juan Hortz Klinika - Zamudio
Tel: 94 545 03 03 - 48150 Zamudio

Gestión Zamudio

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AGINTARITZA - LANTZARITZA

Garbela 7. Edifizio
BIZKAIA URDIO (9-10a)
Telef. 94 452 1111 - Fax: 94 452 1111
Kontabilidate Informatikoa
C.I.F. B 39122444

GRUPO "ACOFISA" ASESORES
KONTABLE-FISKAL-LAN-JURIDIKOAK

Luis Fernando Aguirre

Mateo Hidakomuztegi, 1 - bilaka Nervion, 3 - 8ª - 43pis. 15-7
Tfnoa.: 94 453 33 28 Tfnoa.: 94 423 42 42
Faxa: 94 453 50 Faxa: 94 423 61 70
48150 SAINTEJAKA - Bizkaia 48101 HIRI HALI

VASCOLAQ S.L.
48170 Zamudio (BIZKAIA)
94 452 23 00 tfnoa.




Dizkolan batutako ennegaz egunean eguneko GAILLA gazta freski
ATUEKA San Jakintzeko eta kroleko
BANAKETA DENDETARA, JATETXEETARA,
TABERNETARA ETA JATOKUETARA
Halabait euskal produktuen distribuzioa:
edonon maitatzen dituzte, txakurak, txakurak, txakurak, txakurak, txakurak

ASESORIA DIZA SEGUROS BILBAO

- AHOLKULARITZA LABORAL
- AHOLKULARITZA FISKALA
- KONTABILITATEA
- ASEGURUAK
- Txorierriko etorbidea, 7 (ZAMUDIO)
- Tel.: 94 452 13 28

AHOLKULARITZA FISKALA
JARDORAILA
KONTABILITATEA

AGUNKOR

Arantzabela, 218
Telef. 945 992 28
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)

Consulting Zamudio, S.L.
9951 48808

Sabin Askotzaga
Asesora Auzua
Auzua
609 475 743

Tel. 94 453 8007 Miran, 6. Oheo
Fax 94 453 6027 48150 Zamudio-Bizkaia

DERIO FRUTADENDA




Sollube, 8
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO

HARATEGIA

J. ELORRIAGA

Etxeko berezitasuna: bertoko okela



Urdulaketa, 7. bilaka - 94 455 89 41 LARRABETZU

HARATEGIA ALBERTO



Txorierriko etorbidea, 5
Telef. 452 08 25
48016 ZAMUDIO (Bizkaia)

OKINDEGIA - DASTALEKUA




Aretxalde, 64
Tel.: 94 455 50 36 48196 11 /AMA

KARMELO HARATEGIA

BERTOKO OKELA

ETXKO PRODUKTUAK:

- Txoritxoak
- Odolozkoak
- Fartozkoak
- Mihia
- Ttipakak
- 1/2per txoritxoak
- etabar.



Urdulaketa, 4
Tfnoa.: 94 454 30 48
48110

LEANDRO LANDETA



HARATEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

GABONETAKO APAINGARRIAK

Gabonak ate aurrean ditugu, eta urteko gainerako sasoietan dekorazioari garrantzia ematea aukeran badago ere, eguberrietan dekorazioan pentsatzea oso atsegingarria da, ia ezinbesteko desioa.

Testua: Amaia Rementeria

Ospakizun hauek, gaur egun ezagutzen ditugun eran, XIX. mendeko tradizioan oinarritzen dira. Gaur egun, geure eguneroko bizimoduan guztiz barneratuta ditugu, eta zail egiten zaigu sinisten geure artean 100 urte eskas baino ez daramatela gabonetako zuhaitzek, pazko loreek, frutek, txutxeriek, distirek, girlandek, kandelak, gauza gorriek, lazoek eta abarrek.

Sasoi honetan, dekorazio konposizioek inoiz baino garrantzi handiagoa hartzen dute, jai giroaren eta zorientasunaren zentzua adierazten dute eta.

Lore konposizio egiteko proposamenak

Jai giroko ospakizun hauetan mahaiak duen garrantziak ohartuta, **mahai konposizio** bat egitea ez litzateke txarto egongo. Horretarako, geure basoetatik izai orriak, pinu orriak edo antzekoak hartuko ditugu (esku bete, ez zuhaitz osoa); kandelak, batez ere berde, urre zein gorri koloreekaz nahastuta, berotasun eta intimidadez bete-



Mahaia dekoratzeko proposamen bat

riko gabon giroan sartuko gaituztenez, derrigorrezkoak izango dira. Eta azkenik, aerosol bat erabiliz edo prestatuta saltzen dituzten urre koloreko osagarriak erosiz ere egin daiteke konposizioa.

Baserrian edo txokoa beheko sua daukazuena, **gabon giroko girlandaz** hornitzeko aukera paregabea duzue. Horretarako material natural zein artifizialak erabil ditzakegu: aurrekoan aipatutako hostoak, poinsetia-loreak, lazoak, fruta artifizialak, gabonetako apaingarriak, e.a. Gauzak ondo lotu daitezten, oinarri sendoa prestatu behar dugu, behar den luzerakoa. Esaterako, rafiaz egindako txirikorda erabil daiteke, ondoren apaingarriak lotu edo sili-kona berotzesteko. Girlanda horiei itzelezko ikutua emango diete oihalezko lazo distiratsu eta koloretsuek. Ate aurreko koroek ere egiteko bera dute, era luzean egin beharrean, itxura biribila eman behar zaiolarik.

Etexeko sarreran zein mahai handi batean jarri dezakegun frutontziak etorkizuneko oparotasunaren eta zorientasunaren adierazle bilakatzen dira. Horretarako saski handi bat erabil liteke eta gainean jar litezke jateko fruta, artaburu, fruta artifizial, urre zein zilar koloreko detaileak. Zestillaren inguruko bazter guztiak hainbestetan aipatu ditugun hosto berde ezberdinekin ingura ditzakegu, efektu berezi eta berezkoa sortzeko.

Horrela, irudimenak ematen duen gutzia sor daiteke, baina hori bai, kontutan

Gabon giroa lortzeko erabiltzen ditugun materialek euren esangura zehatza dute:

-Gabonetako zuhaitza bizi-iraupenaren eta bizitzaren sinboloa da. Urtaroen aldaketa adierazten du: susterrek, loreek eta fruituek bizitzaren zikloa osatzen dute.

-Kandelak ere bizitza sinbolizatzen dute, baina ez hain era mugagabea, egun batean kontsumitzen baitira. Eguberri hotzak pasatu behar ditugunontzat, berotasuna ematen digute. Penagarria da kandelan berotasuna argi artifizialek ordezkatzea.

-Ate aurreko girlandak urte osoko ibilera adierazten du. Bisitariari ongi-etorria ematen dio eta etxean familia zain duela adierazten dio.

-Zilar eta urrezko distirak, berriz, jai berezietako ospakizunen tradiziozko adierazgarri bilakatzen dira.

-Pazko-loreak edo poinsetia, XIX. mendean Mexikotik Europara ekarria, bere loratze sasoiagatik eta bere kolore gorriagatik, gabonetarako landare berezizat hartzen dugu.

-Beste material batzuk. Izai, pinu, gorosti zein erratzen hosto eta fruituak oso erabilgarriak dira eurekin hainbat konposizio sor baititzakegu: mahai zentroak, girlandak, koroak, e.a. Izadiko elementu horiek urteko gaurik laburrenarekin lotzen gaituzte. Pinaburuak antzinatek erabili ohi dira etxe sarrera eta lorategietan, izozteetatik eta zorigaitzoko gertaeretatik babesteko. Urte oparo eta zoriotsua eskaintzeko era ederra da.

izan behar da askotan etxea gauza bereziz betetzen bada, nekagarri gerta daitekeela.

Detaileak gorde behar dira, senak eskatzen duena egin eta sormena landu.

Gabon zoriotsuak pasa itzazue!

EGUBERRI ON ET

KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Genteko 58 - Tf. 94 955 51 00 - Fax: 94 955 61 77
48196 IZAZAMA (BIZKAIA)

S.A.T. LEGY
LEZAMA
Gaitziztasun Auzoa, 35
48196 IZAZAMA - Bizkaia
Tf. 94 455 61 98
Fax: 94 455 64 17

GUEDAN
servicios deportivos, s.a.
ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Ribeira-Salcedo (Lugo) - P. Indúst. de Hule, 1 (Lugo) - 48011 MI KUI
Telefonoa 94 427 80 10 - Faxa 94 427 87 12
Zemudioko Kiroldegia: Telefonoa 94 452 21 20 - Faxa 94 452 30 74

WEB PERTSONALA

Testua: Alberto Legarreta

Interneten leku asko dagoz, web orri pertsonalen aukera dohainik emoten dabenak. Ondoren azertzen dira euren ezaugarriak eta argitalpen prozesua (alta, programazioa eta editatzea).

Editatzeko prozesua

1.-Alta. Web orri pertsonalari, normalean, Interneten bertan emon ahal jako alta. Entzuterik handiena daukana Geocities da (<http://www.geocities.com>); Estatuaren arloan, barriz, Wanadoo (<http://www.wanadoo.com>), Terra (<http://www.terra.es>), Eresmas (<http://www.eresmas.com>) eta Euskaltel (<http://www.euskaltel.es>). Bakoitzak bere erara egiten dau negozioa. Batzuk publizitatea sartzen dabe (Geocities); beste batzuk telefoniako hornitzaileak dira (Euskaltel). Azkeneko kasu horretan, bezeroa izan behar dozu, eta

weba eta Internet pakete baten doaz, dana dohainik, dirua deien bidez ataritzen dabe eta.

Alta emoterakoan, zeure orriaren helbidea eta FTP kontua emoten ditue, HTML kodigoa zerbitzarira igoteko.

2.-Programazioa. Orriak egiteko HTMLa erabilten da normalean, ezin da datu-baserik euki eta beste programazio lengoaiarik erabili (PHP,ASP...). Sarean HTMLi buruzko eskuliburu asko dagoz. Adibidez:

-<http://www.etsit.upm.es/~alvaro/manual/manual.html>
 -<http://www.ivia.es/htmlref/>
 -<http://www.geocities.com/SiliconValley/2915/manual.htm>

Tamalez ez dot topau euskeraz idatzitakorik.

Orriak zeure ordenagailuan egiten dira, edozein editoregag egin leike. Lehengo orria normalean index.html deitu behar jako, home-page deritxoguna.

3.-Interneten editatzea. FTP programa erabili behar da. Errez erabilten dan beste programa bat ws_ftp light da eta dohainik dago sarean

Kontuan hartzeko gauzak

-LSSI bete egin behar da orria Estatuko zerbitzarietan eukiten badozu. Orri pertsonal asko kendu dabe lege horren erruz.

-Leku fidagarrietan ipini behar da orria, bertan datuak emoten dira eta.

-Holango orriak ez dira enpresentzat izaten, astiro doaz, ez dauke bere domeinua. Azkenean gauza bat dohainik bada, ezin da egin protestarik eta kezarik.

- Bakarrik orri errez bat egin daiteke. Dana dala, ikasten dabilen jendearentzat balio dau eta polita da gustatzen jakonarentzat.

- Denbora euki behar da mantentzeko.

(http://tu cows.arraakis.es/ftp95_default.htm). Eskuliburua hemen dago: http://www.fut.es/~jmany0/web/ws_ftp/ws_ftp_espanyol.htm.

Hornitzaile batzuen kasuan, euren konexio baten bidez igon behar da web orriko kodigoa.

Edozein gauzagaz arazorik euki ezkeru, beti dago zerbitzari editoreari mezu elektronikoa bidaltzea, zalantzak konpontzeko, edo bestela Interneten topatzea betiko lez (<http://www.google.com>).



JOKATU SAREAN EUSKARAZ

Ziur asko, Gabonak direla eta, astitsu izango zara olgetako. Dena den, orduak zertan eman ez badakizu, hemen proposatzen dizugu ondo pasatzeko beste aukera bat. Ordenadorea eta trebetasuna baino ez dituzu behar izango. www.sustatu.com web orrian, eta BWEB moduan aurkeztuta, ludoteka.com atala aurkituko duzu. Sakatuz gero, joko betetako gunean sartuko zara: mus, xakea, go-moku, poker gezurtia...

Ludoteka.com zerbitzuak beste pertsona batzuekin jolasteko aukera ematen ditu Interneten bitartez. Gainera, dohainik eta euskaraz.

Jolasten hasteko, izen bat eta pasahitz bat eman behar dituzu. Aurrerantz, pasahitz hori beharrezkoa izango duzu identifikatzeko. Lehiakidea eta joko aukeratu Ludotekan ezagunak diren jokoak dituzu. Hala ere, arauak ahaztuta badituzu edo joko berriak

ezagutu nahi badituzu, web orri honetan informazio zehatza eskaintzen zaizu.

Ludotekaren helburua pertsona bi edo gehiago elkarrekin jokatzeko bada ere, jolasteko beste era batzuk aurkituko dituzu. Horrela, ordenadoreari erronka jo diezaikezu edo lagunekin jolas zaitzke ordenadore berean. Halaber, erakutsi izeneko modalitatea aukera dezakezu. Kasu honetan, ordenadoreak partehartzaileen mugimendu guztiak kontrolatuko ditu.

TA ZORIONTSUA

PATXI COOP. T.X.
Concesionario Zamudio

Mahou

Carlsberg

☎ ifax: 94 452 25 87
970 87 37 14
Ugaldetaren industrialdea 1
48110 ZAMUDIO BIZKAIA

SUINOR COMPUTER S.L.
Tomelarragiti Industrialdea-8 blokea-3.nabea-ZAMUDIO (Bizkaia)

BARAKALDO INFORMATIKA
Miranda Elorbideta 3
48940 BARAKALDO-BIZKAIA
Tlfnoa/Faxa.: 94 4781643

LEHOA INFORMATIKA
Iparregime Elorbideta 56
48940 LEHOA-BIZKAIA
Tlfnoa.: 94 4804638
Faxa: 94 4807145

e-mail: rocco@arraakis.es

LAPIKO/S.L.
Chalcastarandako aseritxak -Jekandiar
ZUZLATTAK

GARIBAY, 07
34 4410001 391 040000

OKTUBRE 1998AN
BLOKUAN

URTE ONAK ETA TXARRAK

Aurreko atalean lehen trena, lurrunezkoa, zelan 1894an heldu zen kontatu genuen. Apurka-apurka, gora behera batzuekin, nobedadea izateari utzi zion. Bigarren atal honetan historiaren beste faseari ekingo diogu, bertan ikusiko dugu Txorierri trenaren inguruan egituratzen joan zela. Ikusiko dugu zelan garai onak pasatu ostean, erdi baztertuta eta ahaztuta egon zen, berriro garrantzia irabazten hasi zen arte. Zoritzarrez leku batzutan, baztertzetik desagertzera pasatu da.

Testua: Jose Angel Mentxaka

Elektrifikazioa

1947an "Ferrocarriles y Transportes Suburbanos" konpainia eratu zen, eskumaldeko linea guztien jabea egin eta modernizazioari ekin zion. 1950ean elektrizitatea heldu zen lineara. Urte bi lehenago hasitako lanak amaitu ostean, linea guztiak elektrikoak bihurtu ziren.

1960an azken lurrin lokomotora desagertu zen Txorierriatik. Garai baten amaiera izan zen.

Trenbide ondoan industria eta etxebizitzak

Trena industria garapenaren ardatza bihurtu zen. Geroago eta gehiago bidaieriak fabriketako langileak ziren, ez ordura arteko baserritarrak soilik.

Mendearen erdira arte baseritik kanpo nahiko aktibitate eskasa zegoen. Kanposantua eta bere inguruko marmoleriak, teileri batzuk eta gutxi gehiago zegoen lekuan fabrikak hasi ziren eraikitzen. Mendearen erdirako bazeuden Liperhaide, Siga eta Cordeleria Asuan, Curtidos lantegia Larrondon, Jabonera Derion.

50. eta 60. hamarkadetan Asua ibaia inguruan Remetal, Olarra, Euskalduna, Magefesa... eta beste hainbat jarri ziren. Inguruko herriek ere aldaketa nabarmena sufritu zuten. Sondikako San Juan auzoa garai horretakoa da, Derio herria "behera" aldatu zen. Zamudio ere hazi egin zen. Trenetik urrun eta hazkunde urbanistikotik kanpo Loiu (Larrondo izan ezik) eta Larrabetzu gelditu ziren. Lezamako hazkunde apurra tren geltoki ondoan izan zen.

*"Automobilien
gorakadak bazirudien
trena etorkizun barik
uzten zuela"*

Trenaren gainbehera

70. hamarkadan trenak jaitsiera garrantzitsua izan zuen. Automobilien gorakadak bazirudien trena etorkizun barik uzten zuela. Utzikeriagatik trena guztiz baztertuta geratu zen.



Trena Sondikan



Trena Zamudiotik

GABON ZORIONTSUAK



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;
ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

hormigones

de zamudio

KALITATE BIKAINA, BEREHALAKO ERANTZUNA

- Hormigoi-kamiak ugariak eta modernoak
- Ezin hobeto kokatutako planta
- Obrarainoko garraio azkarra

Torrelarraigaiti ind., 7-g • 48170 Zamudio - Bizkaia
Tel.: 94 452 29 70 • Fax: 94 452 31 65
E-mail: hormizamudio@jazzfree.com

ABEKO
N
NCE
WEMBRO DE
AEFHOP

1969.ean, lurjausi baten ostean trenbidea moztuta gelditu zen, "Ciudad Jardin"en amaitzen zen, "transbordo" egin eta Matikon beste trena hartu. (17 urte igaro ziren horrela, konpondu barik)

Beste linean ere, Mungiakoan, arazoak bata bestearen atzetik. 1966-67 bitartean ea urtebete etenda egon zen aireportuaren handitzeagatik, eta 3 kilometrotan luzatu zen trenbidea. 1977.an aireportua berriro luzatu zenean betirako eten zen linea. Sondikatik Mungiara ez da gehiago trenik egon.

Berpizkundea

1982.an "Eusko Tren"ak hartu zuen jabegoa eta berrikuntzari ekin zion. 1986an Galtzadetaraino zabaldu zen berriro. Sondikan geltokia barria egin zen

1992an. 1994an Elotxelerriko apeaderoa, Derioko geltoki barria eta Lezaman Eleizalderaino luzatu zen.

Garai honetan Bilbon ere aldaketa nabarmenak egin ziren. "Galtzadetako" geltokia, betikoa, zerbitzuetik kanpo gelditu zen. Tunel batek "Areetako" geltokiagaz lotu zuen trenbidea, gero Deustu eta San Inaziora jarraitzeko. Azkenez, San Inaziokoa moztu eta Deustun amaitzen da.

Trenbidea ez ezik, trena bera ere aldatzen joan da, hori bai, txorierritarroi beti bigarren eskukoak tokatu zaizkigu. Hasierako "txokolaterak" 1960an guztiz desagertu zirela ikusi dugu. 1986an egurrezko trenetokatu zitzaizkien. Plentziako linean barriak jartzerakoan, bertakoak Txorierrira ekarri zituzten (burdinezkoak




Mungiatik Sondikara irten zen azken trena (1975-05-11)

hauek). 1992an berriro Plentziako lineak gugana datoz ("UTE-serie 200" deitutakoak). 1996.ean berriro aldaketa, oraingoan Donostia Hendaia arteko "topo" lineatik ekarrita (UTE-serie 300ko 10 unitate, CAF enpresak 1990ean egindakoak). Horreexek dira gaur egun jarraitzen dutenak.

Txorierriko linea guztiak ez dute izan zoritxarrez berrikuntza hori. Sondikatik Mungiara eten ostean (1975.eko maiatzaren 11n), Lutxana-Sondika zatiari etorri zitzaion txanda. 1996an utzi zion zerbitzua emateari. Arrazoa bidaiaririk ez zegoela izan zen, baina tren kopuru eskasekin guztiz baztertuta zegoen. Epe labur baten ondoren berriro jarri zen martxan, 2001.eko udan, Artxandako tunela konpontzen zen bitartean alternatiba moduan. Gaur egun ez dabil bertatik bidaiarientzako trenik, eta barru zerbitzuetarako erabiltzen du Eusko Tren-ek, Lutxanan duten "kotxera" kaz lotzeko, Bilboko Tranbia barria probatzeko...

Datuak eta argazkiak Azpeitiko Trenbidearen Euskal Museoa utzita



ETA URTE BERRI ON

OLANDO S.L.
AROSATEGIA

- Sukaldeko altzariak, neurrira eginak
- Bainugelako altzariak, neurrira eginak
- Horma-armairuak
- Mahaiak eta aulkiak
- Txokoetarako altzariak

Lurbe Industrialea
 115 plataforma, 34 nabesak
 48960 Galdakao (Bizkaia) Tel/Fax: 94 456 06 00

Kudeaketarako Sozietatea
Birziklitzeko Zentro Aurreratua

SOGECAR

Tratamendu larroak
 -Erabilitako olioak
 -Agortutako taladrinak
 -Disolbatzaleak
 -Automozio
 hondakinen kudeaketa osoa

Torrelarragoti Ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonoa: 944 977 177 - Faxa: 944 522 619

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
 San Martin auzoa, 130
 Zamudio (Bizkaia)
 Tel: (94) 452 00 88 - 55
 Faxa: (94) 452 11 46

Vertigo

GONZALO FERRETTAS FORK
 Etxearen gainean - Lantegiak

IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

Kontuzketa, Txostenak, Txostenak, E. G. B.
 48911 793 ZAMUDIO (Bizkaia)
 Tel: (94) 452 00 88 - 55
 Fax: (94) 452 11 46

GABONAK AILEGATU DIRA BAILARARA

Txorierriko udalek eta kultur taldeek hainbat ekintza antolatu dituzte umeek eta gazteek ez ezik nagusiek ere ondo pasa dezaten Gabonetan.

Testua: Itxaso Marina

Dudarik gabe, umeak Gabonetako protagonistak dira. Izan ere, ilusio handiz hartzen dituzte jai hauek. Eta ez da gutxirako! Oporrak, kale-giroa, opariak... Hori kontuan hartuta, Txorierriko udalek eta kultur taldeek ekintza pilo antolatu dituzte etxeko txikienak izugarri diberti daitezten Gabonetan. Horrela, zinea ikusteko irteerak, txotxongiloen emanaldiak edo taillerak, besteak beste, izango dira. Dena den, edozein haurren ametsa Olentzeroren etorrera da eta egun horretarako egitaraua zabal ere bada.

Olentzeroren eguna

Zakua opariz beteta, ikazkina menditik jaitsiko da presaka, Txorierriko herrietara garaiz heltzeko abenduaren 24an. Hainbat tokitan bere zain izango ditu umeak, besok zabalik hartzeko prest. Ailegatu bezain pronto kalejira hasiko da eta herrietako kaleetatik Olentzeroren kanta entzungo da. Amaitzean, urtean zehar zintzo portatu diren umeen artean opariak banatuko ditu eta, nola ez, bihurriak izan direnek ere erregaluren bat izango dute. Baina aurre-rapena baino ez da izango. Gauez, Olentzerok haur bakoitzari bisita egingo dio haien nahiak betetzeko asmoz.

Beste alde batetik, Errege eguna ere berezia izango da gaztetxoentzat. Denbora ez galtzeko, turismo-hegazkinez edo gurdiz helduko dira bailarara urtarrilaren 5ean. Olentzerok bezala, gozokiak eta opariak banatuko dituzte morroiek lagunduta.

Gazte eta nagusientzako ekitaldiak

Nahiz eta, hasieran aipatu den legez, umeak Gabonetako protagonistak izan, gazteek eta nagusiek ere makina bat ekitaldi izango dituzte aurten: irteerak, dantzak, lehiaketak, erakusketak, kirola... Horrezaz gain, Gabon Kanten jaialdiak, antzerkiak eta hitzaldiak antolatu dira Txorierriko herrietan.

Gabon Zaharreen kotiloak egongo dira hainbat tokitan. Joango den urtea eta etorriko dena agurtzeko modu polita izango da.

ZORIONAK, URTE BERRI ON ETA ONDO PASA!!



ONDO HASI 2003A

ARTIZAR
MARKOA JATZEKO TAILERRA

Jaiak Ajarik, 3
Tel. 94 453 01 50

48170 ZAMUDIOA
Bizkaia

OSKARBI
fotografoak

II. BILDETA ADEZUEZ ETXEA

TAILERRIKALEA 5
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 605 705 097
E-mail: oskarbi@euskalnet.net

luz zamudio
ARCI APARATUAK

Milietan lanak | (j) onak | Telefonoa eta Faxa | 94 430 11 60 - 48170 Zamudio (Bizkaia)

GORA EUSKO LABELA!

Askotan entzuten dugu ez dugula etxean daukaguna baloratzen galtzen dugun arte. Nire kasuan, galdu-galdu ez nuen etxekoa galdu, baina kanpoan hiru hilabetez egon eta gero, etxeko jakiak eta ohiturak gehiago baloratzen ikasi dudala aitortu behar dut.

Kontua zera da, pasaden udan Kaliforniako Seal Beach-en egon nintzen, ustez, egun guztia hondartzan eguzkitan eta hanburgesak jaten emango nuelakoan, baina esaerak dioenez, usteak erdi ustel!

Lehenengo disgustua heldu nintzen gau berberan jaso nuen: abegi-familiak izugarritzko harrera afaria prestatu zidan soja hanburgesa eta horrelakoekin. Ama santisimia, belarjaleak, barkatu, barazkijaleak ziren!

Gutxienez hemen dauzkagun barazkiak jango balituzte, egonaldia ez zen hain gogorra izango, baina barazkiak baino, Holliwood-en erabiltzen dituzten atrezzo-ko apaingarriak ziruditen! Egun guztiak

igarotzen nituen indabekin (bere sakramentuekin, noski) eta arraultza frijituekin pentsatzen; gauzak horrela, etorkizuna Prestigeeko petrolio isuria baino beltzago ikusten nuen!

Eskerrak gizakiok biziraupena arriskuan dagoenean irudimena berehalaxe martxan jartzen dugula: abegi-familiako ganbaran surf taula bat aurkitu nuen eta kirol hura praktikatzera nindoala esan eta handik aurrera, goiz guztietan taula besapean neramala etxetik ospa egiten nuen.

Hori zen bertsio ofiziala, baina, egia esan, hiruzpalau aldiz besterik ez nuen surfa praktikatu, etxetik irten bezain laster, txinatar oso jator baten okindegi antzeko batera joaten bainintzen bai gosaltzera, bai bazkaltzera. Garai onean aurkitu nuen nik okindegi hura! Zelako donuts barietateak! Kremazkoak, mermeladazkoak, koloretako txokolatzeko txirbildunak... gora kolesterola!

Orain ulertzen dut zergatik ikusten nuen hainbeste pertsona gizen kaleetatik; telebistan agertzen diren emakume eta gizon zoragarriak barazkiak egiten dituzten produktu plastifikatu berberaz egiten dituztelako!

Ez da inon etxean bezain ondo jaten.

Testua: Txorierritar gosekila



Non daude Kaliforniako "Barbie"ak?

"LAIA HOTEL MUSEOA"



L A I A	Parke teknologikoa
	Eraikina 806 - Derio (Bizkaia)
	Tel. 94 431 76 80
	Fax 94 431 76 81
	laia@saviat.net www.saviat.net

Txorierrin kokatuta dago, Derioko herrian. Energia berriztagarrien sistemei esker, berau da hotel ekologiko bakarra.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gorriti euskal eskultoreak beren-beregi egin du ohe bakoitza.

Euskal Herriko historiaurretik gaur egunera arteko elikatze-moduak erakusten dituen museo bat jarri da jantokian.

Euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarrik berritzaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu atseden hartzeko eta erlaxatzeko: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta automasajeko koltxonetak.

LEHIAKETA

Hilabete honetatik aurrera, hilero-hilero, lehiaketa bat egingo dugu aldizkarian. Saria hauxe izango da, lagun birentzat: asteburu batean gau bat pasatzea Laia Hotel Museoa. Sariaren barruan daude gela bakoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua (sauna, jacuzzia, etab.)

Zozketan parte hartzeko, galdera hau erantzun behar duzue:

Zeini zuzenduta dago Osakidetzak Txorierrin martxan jarri berri duen kanpaina?

Bidali erantzunak (zuen telefonoarekin), urtarilaren 20a baino lehenago, postaz (Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama), edo aikortxori@yahoo.es helbide elektronikora idatzita.

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

ETXEKO SUKALDARITZA

INTXAUR SALTSA


Osagaiak

- Kilo eta erdi intxaur
- Bi eta erdi edo hiru litro esne
- Kanela palu bat
- Kilo erdi azukre

Intxaurrak zuritu, batu trapu baten eta mailu bategaz jo txiki-txiki egin arte, eta kafe ehogailuan (molinilloan) pasatu. Lapiko batera bota eta ur apur bat nahastu. Gero bota ganera esnea, kanela palu bat eta astiro-astiro egosi su txikian, sarri eraginez. Euki sutan ordu bian gitxienez (gehiagoan bada hobeto). Kolore marroixka hartzen hasten danean bota azukrea norbere gustura.



Mari Tere Onaindia



BAKAILAO ZATIA BARAZKI KONFITATUEKIN

Osagaiak (4 lagunentzat)

- 4 bakailaoren bizkar,
- bakoitza 200 gramokoa
- 2 tomate heldu
- 8 berakatz-atal
- 2 piper txorizero
- Gisatzeko piper gorri bat
- Kalabazin txiki bat

Porru bat
oliba olioia
12 otarrainxka (langostino)
Gatza

Prestatzeko modua

Lehenengo eta behin, barazkiak (tomateak ez) ataletan zatituko ditugu eta 10 minutuz su epeletan konfitatu ditugu oliba oliotan. Bitartean, tomate bakoitza lau puskatan zatituko dugu, pipitak kendu eta 10 minutuz oliotan erreko ditugu, gatza emanda.

Gero, oliotatik aterako ditugu barazkiak. Bakailaoa eta otarrainxkak (azalik gabe) bota eta su epeletan izango ditugu 15 minutuz. Piper txorizeroari mamia kenduko diogu eta oliotan utziko dugu.

Otarrainxkak eta bakailaoa atera, eta olio horrekin pil-pil moduko saltsa gorria egingo dugu.

Plateretan bakailaoren bizkar bana jarriko dugu. Alboan, barazki konfitatuak jarri eta gainetik saltsa botako dugu. Bakailaoren gainean, hiru otarrainxka ipiniko ditugu.



San Isidro jatetxea (Derio).

ZORIONAK !!!

ALDIZKARIA JASO GURA
DUENAK DEITU BAINO EZ
DU EGIN BEHAR
TLFNOA: 94 452 34 47
EDO E-MAILEZ ESKATU
aikortxori@yahoo.es

TRASLUCATUAK - BANATZEKO TREKADAK - KABAJ FALTSUAK
DUELA BARRIOA - PIRENEA ILLAK - INKURIMENDU/ALAKAK
MANPARAK - ZORU TEKNIKAK (GORATUAK)

Erretxatzenagailu (tel. 47) Urtarrak 19440 14 11 19440 17 95
GHEB/AMIEKIKI (KODPLAD) Plaza 10 10 14 47



Dioptriarako graduatunak
Kontakitu kalitateak
Egutziakiko beharrekoak
Laguntza eragileak

Ora kalera, 3. aldea, 91 452 28 18 ZAMUDIO

LIBURUAK

- "Blues pasadizoak"
Joserra Senperena
- "Nere ekialdea"
Benito Iertxundi
- "Maite out"
Bide ertzean
- "Heldu artean"
Mikel Urdangarin
- "Berezienak"
Uga
- "Blues sustraia"
Arima Beltza
- "Onna"
Sorkun


DISKOAK

- "Aizak eta Aizan elkarrekin dantzan"
A. Lertxundi.-Elkarlanean
- "Leonardo jakintsu handia"
Truk
- "Tulipa gorria"
Gari Berasaluze.-Txalaparta
- "Hau ametsgaiztoa!"
Lili Pissenlit.-Gatuzain
- "Euskitz"
J. Manuel Etxebarria.-Ibaizabal
- "Ez gara berdin baina berdin da"
S. Calleja.-Desclee
- "Ekialdeko mamuek"
Jon Arretxe.-Elkarlanean
- "Los hijos de Ogaiz"
Toti Martínez de Lezea.-Tarttalo
- "Errautsera arteko segarra"
Imanol Zurutuza.-Elkarlanean
- "Gerra da leku honen izena"
Jordi Sierra i Fabra.-Elkarlanean
- "Ortzadarra sutan"
Fernando Morillo.-Elkarlanean

DENBORA PASA

6 ezberdintasunak

Nongo udaletxea da hau? Zein da benetako Lezamako eleiza? Aurkitu dituzu 6 ezberdintasunak?




UMOREA

EGUNERO ARTXANDARA

Bilbotar bat egunero igotzen da Artxandara jakiteko nola ikusten den Bilbo bera barik.

SOLUZIOA



IRTEERAK

SONDIKA

Bilboko PINera. Abenduaren 26an eta urtarrilaren 3an

Max Center merkataritza-guneko zineetara. Abenduaren 27an eta urtarrilaren 4an.

"101 dálmatas" musikala. Abenduaren 30ean. Euskalduna jauregian.

"Oliver!" musikala (euskaraz). Urtarrilaren 2an. Euskalduna jauregian.

LOIU

Oliver antzerkia. Urtarrilaren 4an, Euskalduna jauregian.

DERIO

Euskadi-Mazedonia partidua. Abenduaren 28an. Galdetu kiroldegian.

Patinatzeko irteera. Abenduaren 28an eta Urtarrilaren 2an. Galdetu Gaztelekun.

DERIO

PINerako irteera. Urtarrilaren 3an.
"Los sobrinos del capitán Graham" izeneko zartzuela. Urtarrilaren 3an, 20:00etan Arriaga antzokian. Galdetu Udaletxean.

Zinea. Urtarrilaren 6an. Galdetu Gaztelekun.

ZAMUDIO

"101 dálmatas" musikala. Abenduaren 29an, 16:00etan. Euskalduna jauregian.

Bilboko PINera. Urtarrilaren 3an.

"Oliver Twist" musikala. Urtarrilaren 4an, 16:00etan. Euskalduna jauregian.

LEZAMA

Ume eta gazteentzako gabon irteerak. Abenduaren 26 eta 27an (patinatzerak eta bole-
rarak). Galdetu Udal Liburutegian.

Eskiatzera (Alto Campoo). Abenduaren 26 eta 27an. Zorriketanek eta udalak antolatuta. Galdetu Udal Liburutegian.

Euskal Selektzioaren futbol partidura. Abenduaren 28an. Zorriketanek eta udalak antolatuta. Galdetu Udal Liburutegian.

LARRABETZU

Euskal Selektzioaren futbol partidura. Abenduaren 28an.

"Oliver" musikala. Urtarrilaren 2an, Euskalduna jauregian, 16:00etan.

UMEENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO EKITALDIAK

SONDIKA

Txiki Eguna. PIN, jokoak... Kiroldegian. Abenduaren 28an.

Erregeen kabalgata. Urtarrilaren 5ean, 18:00etan aireportuan.

LOIU

Marsel magoaren emanaldia. Abenduaren 26an, 18:00etan Kultur Etxean.

Elvi bentrilokuoaren emanaldia. Abenduaren 27an, 18:00etan Kultur Etxean.

Txotxongiloak: "Rosa, ipuin bat kontaidazu". Abenduaren 30ean, 18:00etan.

Txotxongiloak: "Non dago haizetxo". Urtarrilaren 2an.

DERIO

Lehiaketak: billarra, partxisa, ping-pong... Gaztelekun. Abenduaren 23tik urtarrilaren 6a arte.

Makillaje tailerra. Abenduaren 27an, 11:00etatik 13:00era ludotekan.

PINa kiroldegian. Abenduaren 28an.

Euskal dantzak. Abenduaren 29an, 11:30etan, kiroldegian.

Kirol ekintzak. Abenduaren 31n, 11:00etatik 13:00era kiroldegian.

Gabon Zaharreko jairako makillajea. Abenduaren 31n Gaztelekun.

Ludokotilloia. Urtarrilaren 3an, 17:00etatik 20:00etara.

Errege-desfilea. Urtarrilaren 5ean, 18:00etan, elizan.

ZAMUDIO

PINa kiroldegian. Abenduaren 26tik 30era.

LEZAMA

Ipuin kontalaria, "Rosa, ipuin bat kontadazu". Urtarrilaren 26an, 17:30etan liburutegian.

LARRABETZU

PINa frontoian. Abenduaren 23an eta 24an.
Gabonetako postalak ludotekan. Abenduaren 23an, 11etatik 13:00etara.

Olientzero prestatzera. Abenduaren 24an, 11:00etatik 13:00era ludotekan.

"Gabonetako 10. bertso saioa", Xabier Amurizak aurkeztuta. Osterantzean, musika jaialdiak, hitzaldiak, Unai Elorriaga eta Julen Gabiriaren solasaldia... Hori Bai gazte elkarteak antolatuta.

Hanka palu eta globoflexia tailerrak ludotekan. Abenduaren 26an.

Pilota partidua frontoian. Abenduaren 26an eta 27an.

Ping-pong txapelketa frontoian. Abenduaren 26an eta abenduaren 31n.

Betiko jolasak ludotekan. Abenduaren 27an, 11:00etatik 13:00era.

"Pintxo eguna", sukaldaritza tailerra ludotekan. Abenduaren 30an, 11:00etatik 13:00etara.

"TXAPITTEL" pailazoak, magoak eta abar eskolako patioan. Abenduaren 30an, 17:00etan.

Jockey frontoian. Abenduaren 30ean.

Gabon Zaharreko makillajea ludotekan. Abenduaren 31n, 11:00etatik 13:00etara.

Lineako patinak frontoian. Urtarrilaren 2an.

Play-back txapelketa ludotekan. Urtarrilaren 2an, 11:00etatik 13:00etara.

Lineako patinen jockeya frontoian. Urtarrilaren 3an.

Ludo Kotiloia, (umeentzako diskoteka) ludotekan. Urtarrilaren 3an, 17:00etan.

Marsel Magoaren ikuskizuna eskolako patioan. Urtarrilaren 4an, 12:00etan.

NAGUSIENTZAKO EKITALDIAK

DERIO

Irrati maratonia Ilotz irratan (108.00 FM). Abenduaren 27an, 10:00etatik 24:00etara.

Futbol-sala Pozagarri areto-futboleko taldearekin. Abenduaren 27an, 19:00etan.

Dantza. Abenduaren 28an eta urtarrilaren 4an, Nagusien Etxean.

ZAMUDIO

Kotiloia. Abenduaren 31n, goizaldeko 01:00etan kiroldegian.

ERAKUSKETAK

LOIU. Gabonetako posta-txartelen erakusketa Kultur Etxean. Abenduaren 27a arte.

Liburu berrien erakusketa. Urtarrilaren 3a arte, liburutegian.

DERIO

Aeromodelismoa. Abenduaren 27tik 29a arte, SUBYKE klubean.

Derioko argazki zaharrak. Abenduaren 26a arte, Txoria kultur elkartearen.

Hego Ameriketako belenak. OCSI GKE-ren eskutik. Urtarrilaren 2tik 5a arte.

LEZAMA. Gabon-Txartelen erakusketa. Urtarrilaren 7tik 17ra, kultur etxean.

ANTZERKIA ETA FILMEAK

DERIO. Antzerkia. "8 mujeres" Sutóndean taldeen eskutik. Urtarrilaren 11n, 19:30etan eta 12an, 18:00etan. Institutuan.

ZAMUDIO. Umorezko antzerkia. Abenduaren 27an eta 28an, 20:00etan eta 21:00etan.

LEZAMA

"El show de Javier Mañón" antzerkia. Urtarrilaren 3an, 19:30etan gaztelekuan.

Pelikulak, "Stuart Little II", urtarrilaren 10ean, **"Spiderman",** urtarrilaren 17an, **"Lilo y Stitch",** urtarrilaren 31n, kultur aretoan, 17:30etan.

"Contigo en la distancia" antzerkia. Urtarrilaren 26an, 17:30etan, kultur aretoan.

GABON KANTEN FESTIBALA "TXORI-HERRI 2002"

SONDIKA. Abenduaren 22an, 12:30etan, San Juan elizan.

LOIU. Abenduaren 28an, 20:00etan, San Pedro elizan.

DERIO. Urtarrilaren 4an, 19:30etan eta urtarrilaren 5ean 12:30etan, San Isidro elizan.

ZAMUDIO. Abenduaren 27an, 20:30etan, San Martin elizan.

LEZAMA. Abenduaren 21ean, 20:30etan, Andra Mari elizan.

LARRABETZU. Abenduaren 20an, 20:00etan, Andra Mari elizan.



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON



Pentsu naturalak

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama00@cac.es
Buzkideak: 144

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Ganix
DINTAKUAK - ONDARRAK

Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(sarrera Goiko Kaletik)
Tfnoa: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkaia)



Clínica Sondika
Dental

Dr. Martínez de Zaldueña
MEDIKO - ESTOMATOLOGO
Dr. Luis López - Anest
MEDIKO - ESTOMATOLOGO
ORTODONZIA

C/ Getri, 2
48150 Sondika Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
Fax: 94 453 11 68
e-mail: sondikadental@euskalnet.net
web: www.sondikadental.net/sondikadental

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbolinean jokatu, etorri zaitetz Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Bajo
DERIO



BASBE s.l.

ERAIKUNTZAK

Tel/Fax: 94 455 84 51
Zubitaldea, 15 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

UDAL EUSKALTEGIAK...



...y el euskera te sonará bien.
...eta euskara zurea egingo duzu.



TRIPPIRRAKO UDAL EUSKALTEGIA

Herrero Plaza, 8 - 48160 DERIO (Bizkaia) - TEL. 94 454 20 13 - FAX 94 454 20 12
LIZENTZIA: EUSKAL GOB. ARABAKO DEPARTAMENTUAREN M2



Immobiliaria
ETORKI

Herrero Plaza, 1 bis herri
Tel: 94 454 50 53
Móbil: 607 32 35 53

48160 DERIO

BITXITIGIA - TRLOJU-DINDA

Ruben

Lehendakari Leizola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

JOSUNE
JANARI DENDA



GaraioItza, 74
Tel.: 94 455 62 48

Sarreraren

salmmenta

kutxazainetan



Ez zaitez egon ilaran
itxaroten

Orain, hainbat zinema eta
ikuskizunetarako sarrerak,
era erraz eta erosoan lortu
ditzakezu BBK-ko orotarako
kutxazainetan edo
944 310 310 telefonora
deituta.

bbk 